

XEDAPEN OROKORRAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

2238

221/2012 DEKRETUA, urriaren 16koa, Garate-Santa Barbara (ES2120007) Kontserbazio Bereziko Ereму izendatu, eta hura kontserbatzeko neurriak ezartzekoa.

Gobernu Kontseiluaren 1997ko abenduaren 23ko, 2000ko azaroaren 28ko eta 2003ko ekainaren 10eko Akordioen bidez, 6 gune deklaratu ziren Hegaztientzako Babes Bereziko Ereму (HBBE), eta 52 leku proposatu ziren Europar Batasunaren Garrantzizko Lekuak (BGL) izateko. Proposamen hori Europako Batzordeari aurkeztu zitzaion, eta hark Europar Batasunaren Garrantzizko Lekuen (BGL) zerrenda onartu zuen 2004/813/EE eta 2006/613/EE Erabakien bidez. Lehenengoa eskualde biogeografiko atlantikoari dagokio, eta bigarrena, berriz, eskualde biogeografiko mediterraneoari; eta bi horien barne dago gure erkidegoa.

Kontseiluaren 1992ko maiatzaren 21eko 92/43/EEE Zuzentarauan, habitat naturalak eta basoko fauna eta flora babesteari buruzkoan, 4. artikuluan, eta abenduaren 13ko 42/2007 Legean, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzkoan, 44. eta 45. artikuluetan ezarritakoa betez, autonomia-erkidegoek, jendaurreko izapidea bete ondoren, beren lurraldean BGL guztiak Kontserbazio Bereziko Ereму (KBE) deklaratu dituzte, bai eta Hegaztientzako Babes Bereziko Ereму (HBBE) guztiak ere. Horrez gain, behar adina kontserbazio-neurri ezarriko dituzte, eremu horietako habitat natural mota eta espezie mota guztien premia ekologikoei erantzuteko. Kontserbazio-neurriek kudeaketa-planak edo kudeaketa-bitartekoak hartuko dituzte, bai eta arauzko, administrazioiko edo kontratuko neurriak ere. Kontserbazio Bereziko Eremuak (KBE) izendatzeko epea 6 urtekoa da, Europako Batzordeak lekuen zerrenda onartzen duenetik kontatzen hasita.

Era berean, Habitat Zuzentarauak eskatutako lehentasunak hiru maila ezberdinetan finkatu dira: lehendabizi, lehentasuna eman zaie beste babespen figura baten pean ez dauden Kontserbazio Bereziko Ereमुen izendapenari eta presio eta mehatxu handiak jasaten dituztenei; bigarren mailan, eremu bakoitzaren barruan babesteko dauden objektu barruan, funtsezkoak direnak aukeratu dira; eta hirugarren mailan, kontserbazio neurri aktiboak lehenetsi dira, garrantzi gehiena emanez premia gehiena dutenei edo objektuen eta, oro har, eremuaren kontserbazioan hobekuntza nabarmenagoa dakartenei.

EAEko Natura 2000 Sareko Garate-Santa Barbara (ES2120007) izeneko espazioan Europar Batasunaren intereseko habitatak eta espezieak daude, hain zuzen, habitatei buruzko 92/43/EEE Zuzentarauaren I. eta II. eranskinetan jasotakoak, bai eta basoko hegaztien kontserbazioari buruzko 2009/147/EE Zuzentarauaren I. eranskinean jasotako hegazti-espezieak ere. Horregatik izendatu zen Natura 2000 leku.

Garate-Santa Barbara zaintzeko irizpide nagusia Quercus suber artelatz zuhaiztiak, unadak eta ale sakabanatu batzuk egotea da. Beste formazio batzuen artean daude, eta Euskal Autonomia Erkidegoko banaketan, eremu horretan daukate gune nagusia, erkidegoan oso espezie urria baita. Izatez, Gipuzkoako gune hori berezko artelatz duen eremu bakarra da erkidegoan. Hortaz, duen balio nagusia testuinguru atlantikoan bitxia eta urria izatean datza, eta, beharbada, aztertu gabe dagoen genotipoaren aldagarritasunean.

92/43/EEE Zuzentarauak Kontserbazio Bereziko Ereмуak izendatzeko ezarritako eskakizunak betetze aldera, sakon aztertu da gune hori, eta eskala egokian adierazi da Europar Batasuna-

ren intereseko habitaten eta eskualdearen intereseko beste habitat batzuen kokalekua. Horrez gain, Garate-Santa Barbarako fauna- eta flora-espezie bereizgarrien kokapena eta kontserbazio-egoera ere aztertu da.

Aztertuta espazioaren egungo egoera, haren ezaugarri fisikoak eta ekologikoak eta kontserbazioan eragiten duten giza erabilerak, horren ondoren, lekua kudeatzeko giltzarri diren elementuak hautatzen dira, eta horiek izango dira, gero, helburu eta neurriak proposatzeko oinarri nagusia. Kudeaketa-xede diren elementu giltzarri esaten zaie, eta horien kontserbazio-egoera deskribatzeaz gain, zenbait helburu eta neurri zehazten dira, batetik, bermatzeko egoera onean kontserbatuko direla, eta, bestetik, lekuaren osotasun ekologikoa kontserbatuko dela, hori baita Habitatak Zuzentzerak ezarritako helburu nagusia.

Elementu giltzarri horietarako zehaztutako neurriak beste habitat natural eta flora- eta fauna-espezie batzuen kontserbazio ona lortzeko erabiliko dira; hain zuzen ere, aurreko elementuekin batera, Garate-Santa Barbara ere Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzeko arrazoi izan dira, kontserbatu beharrekoak dira eta horrexegatik babes bereziko habitat eta espezieetat jo dira.

Xehetasun-lanek aukera eman dute habitat moten informazio zientifikoa hobetzeko; baina horietan adierazitako azalera-datuetan, zenbaitetan, alde handiak daude Euskal Autonomia Erkidegoak, proposatutako tokien zerrendarekin batera, Europako Batzordera bidalitako eta hari jakinarazitako datuen aldean. Hasierako proposamena egiterakoan lanerako erabili zen eskalak eragin ditu desberdintasun horiek. Xehetasun-azterketan, gainera, ikusi da bazirela Europar Batasunaren intereseko espezieak hasierako proposamenean aipatu ez zirenak.

Mugaketa eguneratua Europako Batzordeari bidaliko zaio, hark onar dezan. Laneko eskala hobetzeak eragin du eguneratze hori, eta ez dakar muga-aldaketa garrantzitsurik, ez du funtsean aldatzen habitat naturalen azaleraren irudikapena, ez eta Europar Batasunaren intereseko flora- eta fauna-espezieen populazioena ere.

Garate-Santa Barbara kontserbazio Bereziko Eremua izendapenerako prozeduran, ondo bete da parte-hartzearen prozesua, nahitaezkoa baita uztailaren 18ko 27/2006 Legearen printzipioei jarraituz (lege horrek ingurumenaren alorrean informazioa eskuratzeko, herritarrek parte hartzeko eta justiziara heltzeko eskubideak arautzen ditu). Prozesu horretan, gizarte- eta ekonomia-interesen ordezkari diren hainbat eragilek hartu dute parte. Izapide-epeak iraun bitartean, zabalik egon dira parte hartzeko jarritako bide guztiak. Horretarako, interesa zuten herritarrei komunikazioak helarazi zaizkie eta, bestalde, propio prestatu genuen web-orri hau: <http://www.euskadi.net/natura2000>.

Garate-Santa Barbararen kontserbazio-neurriak lantzeko, Europako Batzordearen printzipioei jarraitu zaie, helburua baita eremu horretan bertan ageri eta 92/43/EEE Zuzentzerak adierazten diren habitaten eta taxonen premia ekologikoei erantzuna ematea. Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko 42/2007 Legearen 45. artikuluan ezarritakoa betez, KBE bakoitzarentzat berariazko kudeaketa-tresnabatsortzea erabakida. Dekretu honen eranskinean, arau-izaerako kontserbazio-neurriak bildu ditugu, eta kudeaketa-tresnaren gainerako dokumentazioa Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorrean ingurumenaren alorrean eskumena duen sailaren helbide elektronikoan dago eskuragarri.

Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legeko 2.f artikularen arabera, ingurumenaren babesa lurralde-antolamenduari eta hirigintzari gailentzea araudi honen oinarrian dagoen printzipioetako bat da.

Eusko Jaurlaritzari dagokio kontserbazio-neurriak ematea eta finkatzea, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 44. artikuluan ezarritakoari jarraikiz eta baita Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Babesteko ekainaren 30eko 16/1994 Legearen 17. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Horrenbestez, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Babesteko ekainaren 30eko 16/1994 Legearen 16.bis artikuluan eta Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 44. eta 45.1 artikuluetan ezarritakoa betez, jendaurreko izapidea bete ondoren, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuak proposatuta, eta Jaur-laritzaren Kontseiluak 2012ko urriaren 16an izandako bilkuran eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Helburua eta lurralde-eremua.

1.– Garate-Santa Barbara (ES2120007) Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzea, Gipuzkoako Lurralde Historikoan.

2.– Kontserbazio Bereziko Eremu horren mugaketa dekretu honi eransten zaion kartografian dago jasota. eranskin horretan, deklaratzeko den Kontserbazio Bereziko Eremu horren bi mugaketa adierazten dira: batetik, Europako Batzordearen 2004/813/EE Erabakiari (eskualde biogeografiko atlantikoan Europar Batasunaren Garrantzizko Lekuen zerrenda onartzekoari) dagokion mugaketa, eta, bestetik, mugaketa eguneratua, Europako Batzordeari bidaltzen zaiona.

3.– Garate-Santa Barbara Kontserbazio Bereziko Eremuaren (KBE) kontserbazio-neurriak onartzea.

2. artikulua.– Xedea.

1.– Arau honen xedea hau da: Kontserbazio Bereziko Eremuan (KBE) bermatzea Europar Batasunaren intereseko habitat naturalak eta basoko fauna- eta flora-espezieen habitatak lehenera ekarriko direla edo, ondo kontserbatuta, horiei eutsiko zaiela. Horiek ezarrita daude Kontseiluak 1992ko maiatzaren 21ean emandako 92/43/EEE Zuzentarauan, habitat naturalak eta basoko fauna eta flora babesteari buruzkoan. Horrez gain, arauaren helburua da hegazti-espezieen biziraupena eta ugalketa ziurtatzea dagokion kokaleku-eremuan, eta, bereziki, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak basoko hegaztien kontserbaziorik buruz 2009ko azaroaren 30ean emandako 2009/147/EE Zuzentaruaren I. eranskinean adierazitako espezieena, bai eta eranskin horretan adierazi ez diren baina gurera iritsi ohi diren espezie migratzaileena ere. Horren guztiaren azken helburua da ahalegina egitea Europako lurraldean biodibertsitatea kontserbatuko dela bermatzeko.

2.– Kontserbazio Bereziko Eremuan araubide orokor hau aplikatuko da: 92/43/EEE Zuzentaruaren eta 2009/147/EE Zuzentaruaren ezarritakoa, eta Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen ezarritakoa.

3. artikulua.– Kontserbazio-neurriak.

1.– Dekretu honen helburu den eta Natura 2000 Sarea osatzen duen Garate-Santa Barbara eremua kontserbatzeko neurriak dokumentu hauetan zehazten dira:

a) Kontserbaziorako helburuen eta neurrien agiria.

b) Kartografia.

b.1.– Mugaketa.

b.2.– Habitat naturalak.

b.3.– Zonakatzea.

c) Gehigarria: kontserbatu nahi diren habitat- eta espezie-moten kontserbazio-egoeraren jarraipenari buruzko fitxak.

2.– Arau-izaerako xedapenak honako hauek dira:

2.1.– Helburu eta neurriei buruzko dokumentutik 4., 5., 7., 9. eta 11. tituluak eta 6. eta 8. titulu-tako helburu eta neurriei buruzko koadroak.

2.2.– Artikulu honetako 1.b.1 paragrafoko eremuaren mugaketaren kartografia.

2.3.– Artikulu honetako 1.b.3 paragrafoko kudeaketarako zonakatzearen kartografia.

Xedapen horiek dekretu honen eranskinean argitaratzen dira. Gainerakoak informatzekoak eta orientagarriak dira.

3.– Kontserbazio-neurrietan funtsezkoak ez diren berrikusketak edo aldaketak ingurumenaren alorrean eskumena duen sailburuak emango ditu, agindu bidez, egoerak berak edo eskura dauden ezagutza tekniko eta zientifikoek hala egitea eskatzen badute, eta, betiere, 92/43/EEE Zuzentarauaren 11. eta 17. artikuluetan ezarritakoa betez. Izan ere, kontserbazioa eta kudeaketa moldaerazak, etengabeak eta malguak izan daitezten lan egitea da helburua. Prozedura horretan, bermatu egin behar da herritarren parte hartzea benetakoa eta eraginkorra izango dela, 26/2007 Legeak ezarri bezala; eragindako administrazioei eta erakundeei kontsulta egingo zaie eta Natur-zaintza organoaren txostena jasoko da.

4.– Ingurumenaren alorreko sailaren egoitza elektronikoan egongo dira eskuragarri kartografia –formatu digitalean, eta eremu horien mugaketa adierazita– eta kontserbazio-neurriei buruzko agiri guztiak.

XEDAPEN IRAGANKOR BAKARRA.– Kontserbazio Bereziko Eremuaren eguneratzea.

1.– Kontserbazio Bereziko Eremuaren mugaketaren eguneratzea Europako Batzordeak hartutako Erabakiaren iragarkia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

2.– Dekretu hau indarrean jartzen den unetik eta KBEaren mugaketa benetan eguneratzen den arte, lehen paragrafoan adierazitakoa betez, mugaketan eguneratu nahi diren eremuetan prebentziozko erregimena aplikatuko da, hain zuzen, 92/43/EEE Zuzentarauaren 6.2 eta 6.3 artikuluan ezarritakoa eta Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 45.2 eta 45.4 artikuluetan ezarritakoa.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA.– Baimena.

Ingurumenaren alorreko sailburuari baimena ematen zaio Eusko Jaurlaritzaren izenean betetzeko legeak ezarritako tramite eta komunikazio guztiak, bai Estatuaren Administrazio Orokorrean, bai Europar Batasunean. Eta, hala badagokio, neurriak ezartzeak eragingo duen kostu ekonomikoa zenbatekoa den kalkulatu du, 92/43/EEE Zuzentarauaren 8. artikulua ezarritakoa betetze aldera.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA.– Ministeriora helaraztea.

Gobernu Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministeriora bidaliko du dekretu honen onspena, hark Europako Batzordea bidal dezan.

AZKEN XEDAPENETATIK HIRUGARRENA.– Indarrean jartzea.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2012ko urriaren 16an.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburua,
MARÍA DEL PILAR UNZALU PÉREZ DE EULATE.

I. ERANSKINA

GARATE-SANTA BARBARA (ES2120007) KONTSERBAZIO
BEREZIKO EREMUAREN KARTOGRAFIA

MUGAKETA

(Ikus mapa)

http://www.euskadi.net/r33-bopvmap/eu?conf=BOPV/capas/D_221_2012/conf_LIC_ZEC.xml&lang=eu

ZONAKATZEA

(Ikus mapa)

http://www.euskadi.net/r33-bopvmap/eu?conf=BOPV/capas/D_221_2012/conf_ZON.xml&lang=eu

II.ERANSKINA

GARATE-SANTA BARBARA (ES2120007) KONTSERBAZIO BEREZIKO EREMUAREN
HELBURU ETA NEURRIAK**OINARRIZKOAK EDO KUDEAKETA-HELBURU DIREN ELEMENTUAK**

Garate-Santa Barbara babes bereziko eremu izendatzera bultzatu duten basa espezieak eta habitat naturalak eta Euskal Herriko biodibertsitatearen kontserbaziorako interesa dutenak oinarrizko elementu edo kudeaketaren helburu dira. Horrela, kontserbazio egoera onean mantentzeko kudeaketarako neurri aktiboak hartu behar dira. Beraz, objektuen katalogo bat osatzen dute, eta objektu hauen gain neurri aktiboak, zuzentarauak eta arauak definitu eta garatu behar dira.

Oinarrizko elementu eta objektuen bitartez egindako hurbilketak, tokiko elementu esanguratsuak kontserbatzeko hartu beharreko neurriak hartzea baimentzen du, eta ekosistemak orokorrean hartuta baino errazagoa egiten du ebaluaketa, ahaztu gabe azken helburua ekosistemen egoera kontserbatzea dela.

Horrela, oinarrizko elementu edo kudeaketarako objektuak aukeratzeko ondorengo irizpideak hartu dira kontuan:

- Eremuan garrantzi handia duten eta Natura 2000 Sarean (eskualdean, estatuan eta Europako erkidegoan) zaintzeko garrantzitsuak diren habitat eta espezieak, baldin eta egoera txarrean badaude eta zaintzeko gestio neurri aktiboak hartu behar badira.
- Kontserbazio egoera bermatzeko, erregulatzea, moldatzea edo faboratzea beharrezkoa den giza erabileren menpekoak diren habitat edo espezieak.
- Beraiengan eragiteak beste espezie edo habitatengan, edo tokiaren osotasun ekologikoarengan onura ekarriko lukeen habitat edo espezieak.
- Beharrezko neurriak hartu ezean egoera txarrean egotera irits daitezkeela ikusi den habitat edo espezieak, eta baita talde taxonomiko baten edo ekosistema baten egoeraren adierazle onak izan daitezkeena, eta beraz monitorizatzeko lan espezifikoak eskatzen dutenak.

Oinarrizko elementua	Justifikazioa
<p><u>Basoak</u></p> <p>Artelatz basoak (CodUE.9330; Cod.EUNIS G2.11)</p>	<ul style="list-style-type: none"> ○ KBEak EAEko artelatz basoen % 76 biltzen ditu. Zonalde kantabrikoan erlikia balio berezia dute. ○ Artelatz basoak interes komunitarioko habitatak dira. ○ Artelatz (<i>Quercus suber</i>) interes bereziko espezie bezala katalogatuta dago Euskadiko Mehatxatutako Fauna eta Landaretza katalogoan. ○ Basoen hainbat ingurumen zerbitzu eskaintzen dituzte: lurzorua eustea eta sortzea, CO₂ xurgatzea, uraren kalitatea bermatzea, Zarautz bezalako hiriguneetatik gertu aisialdirako gunek eskaintzea ... ○ Basoak mehatxatutako espezieentzat kumaldi garairako, babesleku gisa eta elikatze toki aproposa dira. <p>Artadiaren barnean artadi (9340) unada bat dago, eta harizti azidofiloek artelatzekin mosaikoa eratzen dute.</p>
<p><u>Campiña atlántica</u></p> <p>Sega belardiak (CodUE.6510; Cod.EUNIS E2.21)</p> <p>Bazkatutako larreak eta manipulatu gabeko larreak (EUNIS E2.11)</p> <p>Heskaiak (EUNIS FA.3)</p>	<ul style="list-style-type: none"> ○ Sega belardiak interes komunitarioko habitatak dira eta flora espezializatua biltzen dute, arraroak eta banaketa urriko espezieekin. ○ Landazabal atlantikoko paisaiari dibertsitatea eskaintzen dio, eta beste habitat naturalekin lotura eratzen du, artelatz basoekin esaterako. ○ Osatzen duen mosaikoaren paisaia eta kultur balioa. ○ Intereseko fauna espezieak, horietako batzuk katalogatuak, biltzen dituen paisaia da.

BABES BEREZIKO ERREGIMENEAN DAUDEN HABITAT NATURALAK, FLORA ETA FAUNA

Kudeaketa aktiboa eta beraz neurriak, jarraibideak eta arauak ondo definitzea exijitzen duten oinarrizko elementuez gain, «babes erregimen berezikoak» kontsideratzen diren habitatak eta flora eta fauna basa espezieak aukeratzen dira.

Bereziki babesteko habitat natural eta espezieek arreta eta babes bereziak behar dituzte, honako arrazoi hauengatik: balio zientifiko, ekologiko edo kulturala dutelako; bereziak edo arraroak direlako edo mehatxatuta daudelako; edo Habitaten eta Hegaztien Zuzentzeraren eranskinetan edo Mehatxatutako Espezieen estatuko eta EAEko katalogoetan ageri

direlako. Izan ere, habitat eta espezie horiengatik izendatu da Garate-Santa Barbara babestutako eta Natura 2000 Sareko eremu, eta, horregatik, behar bezala zaindu behar dira.

Oraingoz kudeaketarako neurri aktiborik ez dute beharko beraien kontserbazioa oinarritzko elementuren batengan hartutako neurriekin berमतuta gelditzen diren espezie eta habitatak.

Babes erregimen bereziko espezieak ondorengo taulan jasotzen dira:

Espeziea	Habitat Zuzent.	Hegazti Zuzent.	CEEA	CVEA
				IE
Tximeleta (<i>Euphidrias aurinia</i>)	II		LESRPE	
Arkanbelea (<i>Lucanus cervus</i>)	II		LESRPE	
Schreiber muskerra (<i>Lacerta schreiberi</i>)	II		LESRPE	IE
Eskulapioren sugea (<i>Zamenis longissimus</i> antes <i>Elaphe longissima</i>)	IV		LESRPE	IE
Miru gorria (<i>Milvus milvus</i>)		I	EP	VU
Mirotz zuria (<i>Circus cyaneus</i>)		I	LESRPE	IE
Belatz handia (<i>Falco peregrinus</i>)		I	LESRPE	R
Chotacabras europeo (<i>Caprimulgus europaeus</i>)		I	LESRPE	IE
Lepitzulia (<i>Jynx torquilla</i>)		I	LESRPE	IE
Euli-txoria (<i>Ficedula hypoleuca</i>)		I	LESRPE	R
Antzandobia (<i>Lanius collurio</i>)		I	LESRPE	
Etze txinboa (<i>Sylvia undata</i>)		I	LESRPE	

Habitat eta Hegazti Zuzentza eranskinak. CEEA, Espezie Mehatxatuen Espainiako Katalogoa. CVEA, EAeko Espezie Mehatxatuen katalogoa. LESRPE, Babes bereziko erregimenean dauden basa-espezieen zerrenda. EP, desagertzeko arriskuan. VU, zaugarria. R, arraroa.

OINARRIZKOAK EDO KUDEAKETA-HELBURU DIREN ELEMENTUENTZAKO HELBURU ETA NEURRIAK

Oinarrizko elementu bakoitzarentzat gaur egungo egoera definitzen da. «Habitat baten kontserbazio egoera», habitatarengan eta bertan bizi diren ohiko espezieengan eragiten duten eta bere biziraupena zalantzan jar dezaketen eragileen multzoa da. Habitat natural baten «kontserbazio egoera» «onuragarria» kontsideratzen da, bere azalera egonkorra

denean edo handitzen denean eta epe luzera mantentzeko eta etorkizunean existitu ahal izateko egitura eta funtzio espezifikoak egokiak direnean. Modu berean, «espezie baten kontserbazio egoera», espeziearengan dauden eragileak eta epe luzera bere populazioen banaketan eta garrantzian zerikusia duten eragileen multzoa dela kontsideratzen da. «Kontserbazio egoera» «faboragarria» dela kontsideratzen da, habitatean epe luzera bere presentzia arriskuan ez dagoela eta beraz, bere banaketa naturala etorkizunean jaitisiko ez dela eta arriskuan egongo ez dela adierazten duten datuak badaude.

Interes komunitarioko habitat eta espezie guztien kontserbazio egoera ona lortzea da azken helburua, horrela habitat eta espezie guztiek kalitatea hobetu ahal izateko eta azalera handitu ahal izateko, eta gainera, etorkizunean ere hobetzen jarraitzeko aurreikuspenak egon daitezten.

Ahal izan den guztietan Habitat Zuzentaraua aplikatzeko egindako informean (17. artikulua) gomendatzen diren parametro kuantitatiboak erabili dira. Horrekin, informazio estandarizatua eta konparagarria edukitzea lortu nahi da, Estatu mailako eta komunitateko oinarrizko legedia betetzeko eta etorkizuneko informea bete ahal izateko. Horretarako, oinarrizko elementu gisa aukeratu diren habitat eta espezie guztien kontserbazio egoerari buruzko fitxak sartuko dira eranskinean, testu deskribapenekin batera. Taulatan agertzen diren deskribapenak, fitxa hauen laburpena dira.

Kontserbazio egoera definitzeko erreferentziazko balore argiak eta kontagarriak definitzea aholkatzen da. Kontserbazio egoera faboragarriaren definizioa eta kontserbazio egoera baloratzeko kalibratioak, ikerketa lan garrantzitsua eskatzen du. Gaur egun, parametro kuantitatiboak ez daude eta kasu gehienetan ez dago horri buruzko informazio egoki eta nahikorik.

KBEan dauden habitaten artean, kontserbazio egoera baloratzeko lehen urratsak eman dira, banaketaren kartografia eginez, baina bere kontserbazio egoera baloratzeko adierazle kuantitatiborik ez dago.

Kasu hauetan, planaren helburu da informazio gabezia horiek zehaztea eta oinarrizko elementuen alde, gaur egungo kontserbazio egoera zehatzago definitu ahal izateko neurriak ezartzea.

Behin oinarrizko elementu guztien gaur egungo egoera zehaztuta, amaierako helburuak proposatzen dira, bakoitzaren kontserbazio egoera ona bermatzea ahalbidetuko dutenak. Helburu horiek ezingo dira beti plana indarrean dagoen bitartean lortu. Askotan, erantzun epea edo sistema naturalek eboluzionatzeko behar duten denbora oso luzea izaten da edo abiapuntua oso egoera txarrean dago, beraz, berehalako neurriak planteatzen badira ere, planaren exekuzioaren bitartean hasierako aurrerapausoak besterik ez dira nabarmenduko.

Ondoren, gaur egungo kontserbazio egoera baldintzatzen duten faktoreak deskribatzen dira, oinarrizko elementuek helburu bezala definitu den kontserbazio egoera mantentzea erraztu edo zailduko duten faktoreak. Faktore hauetako batzuk kudeaketa dokumentutik eta kudeatzaileen kompetentzia eta erabakietatik kanpo daude, beraz, plan honetatik at landu behar dira. Hala ere, hori horrela den kasuetan, helburuak lortzea horren menpekoa izan daitekeela kontuan hartuta, atal honetan identifikatuko dira.

Esan bezala, azken helburuak zenbaitetan ezin dira lortu gestio dokumentua aurrera eramateko jarritako sei urteetan. Horregatik, helburu bakoitzerako epe horretan lortu beharreko emaitzak edo helburu operatiboak jarri ditugu, aldeko kontserbazio egoera lortzeko bidea ahalik eta arinen egiteko, dauden bitartekoak kontuan hartuta.

Amaitzeko, emaitza bakoitzarentzat neurriak, kudeaketarako jarraibideak eta arauak definituko dira, emaitza horiek lortzea ahalbidetuko dutenak.

Kasu guztietan, oinarrizko elementu eta helburuak definitzeak, ebaluagarriak diren helburuen gainean kudeaketa errazten dute. Hala ere, gogoan eduki behar da, beti, gestio dokumentu honi jarraiki hartutako neurrien helburuak izan behar duela eremuko osotasun ekologikoa zaintzea, Euskal Herrian babestutako eremuen sarea koherentea izan dadin erraztea eta ekosistemen ingurumen ondasun eta zerbitzuak hornitzea.

1.- ARTELATZ BASOAK (Cód.UE.9330)

Kontserbazio egoera

Mendebaldeko mediterraneoko basoa da (Espainia, Italia eta Portugal) eta Iberiar Penintsularen barnean, hego-mendebaldeko koadrantean, Levanten eta Penintsulako Ipar-ekialdean (Katalunia) agertzen da, eta Kantauri isurialdeko toki oso gutxitan, guztira 500 hektareatan.

EAEan artelatzen basoak dauden toki bakarrak Garate (Getaria) eta Santa Barbara (Zarautz) dira. Lemoiz eta Jaizkibeletako zonalde isolatu batzuetan ere ale batzuk agertzen dira kostaldean, eta barrualdean Arraiz mendian (Bilbon).

Artelatzen basoek EAEan 20ha. besterik ez dute hartzen, eta 15ha. (KBEaren % 11) Garate-Santa Barbarako KBEan sartuta daude, habitat honen kontserbaziorako oinarrizko espazioa, izan ere, hau baita Natura 2000 Sarean habitat hori duen espazio bakarra, EAEko artelatzen basoen % 76 hartuz.

Nahikoa azalera duten basotxoak besterik ez dira kartografiatu, eta ez unada txikiak edo zuhaitz bakanduak. Bere azalera ez litzateke inoiz handia izango. Hala ere, bere azalera potentziala txikia izanda ere, aipatu behar da azalera potentzial horretatik zati esanguratsu bat landaketez ordezkatu dela (28ha.), eta gainerakoa larre, belardi eta laborantzez.

Bere naturaltasuna eta lore aberastasuna ertain-baxua da ongi kontserbatutako beste artelatzen basoekin alderatuz. Aurkezten duen egitura aldakorra da; zonalde batzuetan, *Kastillu zarratik Iturtxokorako* magalean esaterako, artelatzen basoa dentsoa da, abeltzaintza eta baso ustiapenak bertan behera utzi direlako, *Parapetogain* eta *Santa-Barbaratik* itsas alderako inguruan bezala. Irekiagoak diren artelatzen basoek, erabilera tradizionalen, ganaduaren, eta egur ustiapenen eragina jasan dute, eta dentsoago geratu dira irisgarritasun zailagoa duten artelatzen basoak, aldapan dau-denak, batez ere. Horregatik, baso hauen behe landaretza urria da, eta egitura konplexutasuna eskasa. Masa hauen kalitateak, gainera, flora espezie inbaditzaileek presentziarekin behera egin du.

Kasu guztietan, artelatzen zaharren eta zutikako edo lurreko egur hilaren presentzia oso urria da.

Artelatzen azaleraren zatiketa ere nabarmena da, beraz, ez dago baso espezie esanguratsurik. Aurreko bi arrazoiengatik, baso hauen funtzionaltasun eta osotasun ekologikoa egokia ez dela adierazten da.

Gaur egun ez da artelatzen basoetan baso ustiapenik egiten, beraz, etorkizunean egoera hobetu daitekeela eta masak heltzen joango direla aurreikusten da, ustiapenen ondoriozko inpaktu arriskua gutxituz.

Artelatzen-basoa: Desegokia-txarra

Azalera	Egitura	Funtzioak	Etorkizunerako aurreikuspenak
Desegokia-txarra	Desegokia-txarra	Desegokia-kaltegarria	Ona-aldekoa

Baldintzak

KBEaren azalera txikia (135 ha.), Zarauzko hirigunetik gertu egotea eta AP-8 bezalako autobide batetik gertu egoteak, fauna espezie populazio zabalak jasotzeko baso habitat helduak egotea ia ezinezko bilakatzen du, nahiz eta basoen naturaltasuna hobetzeko neurriak aplikatu.

Ez dago artelatzaren kontserbazio egoerari buruzko parametro kuantitatiborik, eta adituen iritzien arabera zehaztu da, dagoen informazioa urria eta kalitate gutxikoa da eta. Hartzen duten azalerari buruzko informazioa badago, baina kartografiaren erresoluzioarekin ezin da unada txiki eta artelatz isolaturik kokatu. Kartografia zehaztuago baten faltak eta artelatz lepatuei, zaharrei eta helduei buruzko datu base baten faltak, ale hauen egoera eta kopurua zein den zehaztea zail egiten du, eta beraz, kontserbazio egokirako kudeaketa aurrera eramatea zaila suertatzen da.

Gaur egungo artelatz basoen azalerek eta ale isolatuek ez dute ziurtatzen habitatak KBEan eta EAEan egoera faboragarria lortuko duenik. Horregatik helburuak gaur egungo artelatz basoen azalera aurreikusten du. Horrela, eraketa natural mistoen gainean artelatza ezartzea baztertu egiten da.

Bestalde, apirilaren 3ko 486/2009 Errege Dekretuko 4. artikulua (kudeaketarako baldintza legalak eta nekazal eta ingurunerako baldintza egokiak zehazten dituena), lurraren jabe den abeltzain edo nekazariak araudi komunitarioan ezarritakoa bete beharko duela, eta baita autonomia erkidegoan erabakitzen dena ere, horrela larre iraunkorren azalera orokorrak ahalik eta beherakada gutxiena izan dezan. Era berean, 73/2009 (CE) Araudiaren 6. artikulua dio Estatu kideek ziurtatu beharko dutela 2003an larre iraunkor ziren lurzorua bermatu egin beharko direla. Muga hau ez da aplikatuko, baso-sartzeak egingo diren larre iraunkorretan, baso-sartze hori ingurunearekin bateragarria bada.

Ondo justifikatuz gero Estatu kide batek larre iraunkorren % 10a jaisteko salbuespena egin ahal izango du. Hala bada, neurriak hartuko ditu nekazariari 1782/2003 Araudiko (CE) I. eranskinean aipatzen diren edozein erregimeneko ordainketa zuzenak egitera behartzeko eta lur horiek beste erabilerearako ez erabiltzeko (796/2004 Araudiko (CE) 3. artikulua). KBE honen helburu nagusia artelatz basoen kontserbazioa izanik, ez dirudi larre iraunkorren galeraren salbuespena onartu litekeenik, interes komunitarioko baso habitat hori errekuiperatzeko ez bada.

Horrela, artelatza errekuiperatzeko ezarritako azalera 46ha. ingurukoa da, eta hauetatik 26 ha baso landaketak dira, 18 iradi eta albitz belardiak eta 2 txilardi, antzinako larre eta sastrakadiak. Bazkatutako larreen eta manipulatu gabeko larreen azalera batzuk heskai bilakatu daitezke artelatzen konektore gisa funtzionatzeko.

Bertako baso potentziala ordezkatzeko duten kanpoko espezieen baso landaketen eta laborantzen azalera, artelatzen azalera gutxitzeaz gain, harizti azidofiloak ere gutxitzen ditu, gainera basoen zatiketa arazoak ekarri.

Mendizabal eta Aldarregi eta Ezterain eta Basalore arteko lursailtako baso landaketak artelatza isolaturik agertzen da, eta honek, bertako artelatza lehengoratzeko ekar dezake; honen harira, erraz ikusten dira behe basoan espezie honen landaretxoak landaketa hauetan.

Artelatza errekuiperatu daitekeela uste den zonalde guztiak pribatuak dira. Azken urteetan baso landaketetatik lor daitezkeen etekinak behera egin du EAEan eta KBEan. Aisialdirako eremu naturalen eskaera eta beste ingurumen zerbitzuen balorazioa geroz eta handiagoa da. Honek, ingurumen zerbitzuengatik ordaintzeko sistemak gutxika ezartzea lagun dezake, merkatuen funtzionamenduan oinarritutako finantza tresnekin, eta ondorioz, Landa Garapenerako Programan ezarritako neurriak faboratuz. Neurri hauek betetzeko finantza baliabideak eskura edukitzeak baldintzatuko du bere ezarpena, eta hortaz baso landaketak artelatz bilakatzeko errestituzioa.

Lurraldea malkartsua da, aldapa handiekin. Faktore hau kontuan hartu behar da artelatza berrezartzeko ekintzetan, lurzorua higidura eragin dezaketen teknikak eta makinaria pisutsua ekidinez.

Esan beharra dago baso landaketen errentagarritasuna jaitsi izanak, jabeek beste aukera batzuk aztertzea ekar dezakeela, artelatzen azaleraren alde eginez. Hala ere, azken urteetan baso landaketen azalera gutxitzen joan da, txakolin mahasti bilakatuz eta artelatzen errekupezioa zailduz.

Gaur egun ez da baso aprobetxamendurik egiten KBeko baso naturaletan. Bestalde, artelatzen babes legalak ez du alerik mozteko baimenik ematen. Honekin, habitata progresiboki hobetuko dela aurreikusten da, aleak helduagoak bilakatzen diren bitartean.

Zonalde batzuetan, ibarbideetan esaterako, baldintza edafoklimatikoek, artelatza baino beste espezie batzuk faboratzen dituzte (haritzak, urkiak, haltzak, sahatsak ...) . Hala ere, artelatze edo haritz basoetatik edo baso mistoetatik gertu dauden zonaldeetan, artelatzen presentzia nahiko aldakorra da, eta zaila da dinamika natural bat berrezartzen eta bere oreka eta banaketan giza erabilerak duen eragina baloratzen. Kasu batzuetan neurriak hartu behar dira artelatza babesteko, baina basoen kudeaketa esku-hartze txikiena izan beharko litzateke, epe luzera artelatze eta haritz basoen jarraipena sustatuz.

Abeltzaintzaren ondoriozko presioa kaltegarria izan daiteke baldin eta artelatze-baso trinkoen egitura simplifikatzen badu, adibidez Parapetogaineko hegalean gertatzen dena ardiak bertan baitadaude. Bestalde, behiek *Kastillu zarrako* larreak erabiltzen dituzte. Bertan badaude artelatze sakabanatu batzuk, eta behiek larre egitura hori mantentzen laguntzen dute. Orban batzuen epe luzerako mantentzea arriskuan egon daiteke, ganaduak birsorkuntza zaildu egiten baitu.

Artelatze landare txikiak, udako lehorteetatik eta belarjaleengandik babesteko dioten sastrakadia behar dute lehenengo urteetan, eta baita zuhaitz helduetatik sastrakadietara ezkurra garraiatuko duten animalien beharra ere. Eskinosoak *Garrulus glandarius* eta *Apodemus sylvaticus* basa-saguak laguntzen dute horretan. Hala ere, oin helduen ale batzuk mantendu diren baso landaketetan, behe basoan adin ezberdineko artelatzeak agertzen direla ikusi da, espezie honek duen birsorkuntza ahalmenaren adierazle, eta hazi-bankuen bideragarritasunaren erakusle.

Helburu eta neurriak	
1. helburua	Gaur egun dauden artelatze basoen azalera (15ha.) mantendu eta guztira 61ha. izatera iristeko 46ha.-tan handitu.
1.1 emaitza	Artelatze basoen kontserbazio egoera hobetu, bere dibertsitate espezi-fikoa eta egitura dibertsitatea areagotuz.
Neurriak	<p>1) Artelatze basoen gaur egungo egoera zehaztu, parametro tekniko kuantitatiboak erabiliz. Besteak beste, ondorengoak baloratuko dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Zuhaitz populazioaren egitura (espazioan banaketa eta tamainen egitura). • Plantulen bilketa goiztiarra. • Bigarren mailako espezieen aberastasuna eta dibertsitatea. <p>2) Arkamurka Natur Taldeak egindako artelatzen zerrenda eguneratu eta osatu. Artelatzeak kokatu, kartografiatu eta unadak georreferentziatu egingo dira, baita ale bakanduak ere, eta 3. helburuko 60. neurrian aipatzen den «Basa fauna eta florarentzat balioa duten elementu natural eta kulturalen inbentarioan» sartuko dira. Inbentario honetan bertako zuhaitzen unadak, zuhaitz lepatuak, helduak edo zaharrak, bakanduak nahiz landaretza naturalez osatutako formazioen barnean</p>

	<p>daudenak, zonalde hezeak, heskaiak edo horri lotutako espezieen bizi zikloan laguntzen duen edo tokiaren eta ingurunearen osotasun ekologikoa hobetuko duen edozein elementu sartuko da.</p> <p>3) Kontserbaziorako edo berrezartzeko esanguratsuenak diren artelazdun lursailak Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Zarautz eta Getariako Udalak erostera bultzatu.</p> <p>4) Landa Garapen Jasangarrirako Programako neurrien intzidentzien analisia egin, «bertako basotxoek kontserbazio eta erregeneraziorako», horretarako biodibertsitateari lotutako adierazle neurgarriak erabiliz, eta dagokionean, bere aplikazioa hobetzeko neurriak plazaratuz.</p> <p>5) Santa Barbara ermita inguruko eta Pagotaldiako magaleko artelatzen eta hariztien masa mistoetan artelatza faboratzeko gutxieneko inpak-tudun ekintzak egingo dira. Horretarako:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Sistematikoki eta progresiboki zuhaitz exotikoak kenduko dira (sasi akazia, haritza ...), kentze lanek artelatzen eraginik izan ez dezaten ziurtatuz. (Ekintza hau KBeko baso natural guztietan egingo da). • Artelatzen helduekin zuzenean kompetentzia dauden bertako zuhaitz aleak kenduko dira (Ekintza hau KBeko beste egutera zonaldeetara zabaldu ahal izango da). • Artelatzen ia ez dagoen zonaldeetan soilguneak irekiko dira eta artelatzen landatuz berrezartzea indartuko da, lehenengo urteetan landarea babestuko duen estalketa mantenduz. • Higadura arriskua duten aldapa handiko zonaldeetan ez da ekingo, ezta ibarbide edo klima edo lurzorua baldintzak direla eta beste espezie batzuentzat (haritz, urki, haltza, ...) egokiagoak diren zonaldeetan ere. • Zonalde hauetan ez da abeltzaintzarik emango. <p>6) Parapetogaineko artelatzen basoaren eboluzio naturala sustatzeko, ganaduarentzat itxi egingo da. Soilgune batzuk irekitzeko aukera aztertu beharko da, belar, sastraka eta zuhaixken estratuak garatzeko.</p> <p>7) Sistematikoki eta progresiboki zuhaitz exotikoak kenduko dira (sasi akazia, haritz ...), kentze lanek artelatzen eraginik izan ez dezaten ziurtatuz. Ekintza hau KBeko baso natural guztietan egingo da, dauden artelatzen kaltetzen ez direla ziurtatuz.</p> <p>8) KBeko egutera zonaldeetan, Artelatzen helduekin zuzenean lehian dauden bertako zuhaitz aleak kendu, ekintza horiek artelatzenentzat kaltegarriak ez badira.</p> <p>9) Artelatzen basoak kontserbatzeko eta hobetzeko ekintzak egiten diren zonaldeetan urteroko jarraipena egin, ekintzak egokiak ote diren ebaluatzeko.</p>
Araukak	<p>10) Baso inbentarioek eta KBeko zonaldeentzat idazten diren Baso Ordenaziorako Planek, parametroen kalkulua eraman behar dute, eta baita artelatzen basoen egitura, biologia eta osagai funtzionalen buruzko informazio azpimarragarria eta beharrezkoa ere, biodibertsitatearen kontserbazio egoera baloratu ahal izateko eta neurriak eta jarraipen programei buruz aholkatu ahal izateko.</p>

	<p>11) Basoetako lan eta ekintza guztiak, babes bereziko erregimenean dauden espezieen kumaldi garai kritikotik kanpo egin beharko dira.</p> <p>12) Kudeaketa organoaren baimenik gabe debekatua egongo da artelatza- ren ondoan hazten den edozein zuhaitz edo zuhaixka espezieen aleak moztea. Ale horiek artelatza-arentzat eta bere egitura eta funtzionalita- tearen mantentzearentzat kaltea sortzen dutenean, kudeaketa organoak mozketari baimendu ahal izango du.</p> <p>13) KBEan egiten diren Baso Antolamendu Planek Ingurumen Ebaluazioa pasa beharko dute eta neurtu daitezkeen adierazledun helburuak eta baso biodibertsitatea eta artelatza- ren naturaltasuna hobetzeko ekint- zak jaso beharko dituzte. Ekintza hauek, dagokionean ingurumen kontratu- etan jasotzeko edo jabe pribatu-ekin egiten den edonolako kontserbazio akordiotan sartzeko moduan definituak egon beharko dira. Basoak antolatze-ko proiektuek idazteko edo garatzeko laguntzak jasotzen badituzte, laguntzen % 40, gutxienez, neurri espezifiko horiek aplikatzeko erabiliko da.</p> <p>14) Baso-eragiten dien beste edozein plan edo proiektu-ko biodibertsita- tearengan izan ditzakeen eraginak ebaluatu egingo ditu Natura 2000 Sarearen ingurumen organoak, ebaluazio organo hau proiektuaren sustatzailearekiko independentea izan beharko da biak administrazio publikoaren kasuan.</p> <p>15) Ez dira artelatza- basoen edo KBEko bertako basoen barnetik doazen baso pista berriak irekiko ezta daudenak handituko ere.</p>
Jarraibideak	<p>16) Abeltzaintza, artelatza kontserbatze-ko helburuaren menpe egongo da beti, eta honen intentsitatea zuhurtasun printzipioa jarraituz erregula- tuko da, bertako baso-arentzat mehatxu izan ez dadin.</p> <p>17) Artelatza- basoak hobetzeko ekintzen helburua, bere egitura arkitektu- raren biodibertsitatea izango da, adin guztietako aleen presentzia sustatuz, eta sastrakadi, belar eta briofitoen presentzia sustatuz.</p> <p>18) Tamaina, egoera eta adin ezberdineko egur hila zutik eta lur- rean mantendu beharko da, bereziki enbor handiak eta deskonposaketa fase ezberdinekoak mantenduko dira.</p> <p>19) Barrunbeak eta habiak egiteko tokia duten zuhaitz oso zaharrak man- tendu behar dira, batez ere lodiak, adarkatuak, lepatuak eta balio komertzialik ez izan arren balio biologiko handia dutenak.</p>
1,2 emaitza	Artelatza- ren azalera 2ha.-tan handitu.
Neurriak	<p>20) Artelatza berrezartzeko jabeekin kontserbazio akordioak lortu, gutxi- nez 20 hektareatan. «Baso kudeaketa jasangarrirako Plana» egingo da, 2007-13 «Landa Garapen Jasangarrirako Programa»-ren espa- rruan, plan honetarako aurreikusita dauden laguntzak jaso ahal izateko.</p> <p>21) Landa Garapen Jasangarrirako Programaren neurriek KBEan duten in- tzidentzia, efikazia eta eraginkortasunaren azterketa egin, biodibertsitate adierazle neurgarriak erabili, dagokionean bere aplika- zioa hobetzeko aholkuak emanez, gaur egungo landaketen azalera- ren % 50era iritsi arte. Nekazaritza lur- ren birlanaketak erregulatzen di- tuen neurria eraldatzeko bideragarritasuna aztertuko da laborantza lur- rak eta larreak artelatza- ren kontserbaziorako interesik gabeko</p>

	<p>eraldaketetan aplikatzeko. Aldizkako biodibertsitate enkante eta kreditu sistema bat ezartzeko aukera baloratuko da, ohi bezala homogeneoki hektareaka ordaindu beharrean.</p> <p>22) Artelatza berrezartzeko eta gutxienez 20ha.-ko azaleraraino handitzeko ekintzak aurrera eramateko egutegia egingo da. Egun basoak dauden gertuko partzelei emango zaie lehentasuna, zatiketa murrizten lagunduko dituzte partzelei eta espezie exotikoekin daudenei. Lehentasuna duten parajeak Zarauzko Alleme, Aldarregi, Urkiolaberri eta Getariako Kastillu zarra eta Pagotaldia dira. Zuhaitz sakabanatuak edo bereziki emankorrak diren unadetatik abiatuz birsorkuntza egiteko aukerak ere kontuan hartuko dira, basoaren birsorkuntzan laguntzeko itxiturak eginez.</p> <p>23) Kastillu zaharra bezala irekiagoak diren artelatz basoen inguruko baso landaketetan bertako basoa berreskuratzeko saiakera egingo da, jabeekin akordioak lortuz, artelatzen ondoren landaketa marko egokietan klareoak eginez.</p> <p>24) Landaketen eboluzio eta jarraipena egingo da urtero eta baita artelatza berrezartzeko ekintza guztiena ere.</p> <p>25) Artelatz basoaren konektibitatearen hobekuntzaren adierazle moduan gaur egungo balioa hartuko da erreferentziatzat, landaketen eta baso naturalen portzentaje, orbanen tamaina eta orbanen ertzetatik dagoen distantzia minimoa kontuan hartuz. Adierazle hauentzat jarraipena ezarriko da.</p> <p>26) Gipuzkoako Foru Aldundiko mintegietan Garate-Santa Barbarako KBE-tik eratorritako landare haziekin ekoitzi artelatza, berrezartze ekologikoan erabiltzeko. Horretarako mintegi unadak aukeratuko dira haziak jasotzeko.</p>
Arauak	<p>27) Garapen naturaleko, babes bereziko, berrezartze ekologikoko eta abeltzaintza ustiapen estentsiboko zonaldeetan ezingo dira txakolin mahasti landaketa berririk egin.</p> <p>28) Artelatz-basoa leheneratzeko espezieak ondokoak dira <i>Quercus suber</i> espezieaz gain: <i>Quercus robur</i>, <i>Quercus ilex</i>, <i>Quercus pyrenaica</i>, <i>Castanea sativa</i>, <i>Betula celtiberica</i>, <i>Fraxinus excelsior</i>, <i>Alnus glutinosa</i>, <i>Corylus avellana</i>, <i>Crataegus monogyna</i>, <i>Arbutus unedo</i>, <i>Ilex aquifolium</i>, <i>Salix atrocinerea</i>, <i>Laurus nobilis</i>, <i>Cornus sanguinea</i>, <i>Ruscus aculeatus</i>, <i>Rubia peregrina</i>, <i>Frangula alnus</i>, <i>Smilax aspera</i>, <i>Hedera helix</i>.</p> <p>29) Ondare genetikoa babestu eta kontserbatzeko helburuarekin, berrezartze lanetan erabiltzen diren artelatz haziak inguruko artelatz hautatuenak izango dira.</p> <p>30) % 40 baina handiagoak diren aldapetan ezingo da nekazal edo baso lanetarako makineriarik erabili.</p> <p>31) Berrezarritako zonaldeetan edo erregenerazio naturaleko eremuetan ez da abeltzaintza ustiapenik aurrera eramango, eta beharrezkoa den kasuetan, itxiturak jarriko dira ganaduaren sarrera ekiditeko.</p>
Jarraibideak	<p>32) Lurzorua aurrez prestatuz edo oin nagusiak dauden inguruetan klareoak eginez planteatu behar da artelatza birsorkuntza naturala.</p>

	<p>33) Inguruan artelatza landatu nahi duten jabetza pribatuko lursailletako jabeek Garate-Santa Barbarako KBEko haziak eskuratzea erraztu.</p> <p>34) Berrezartze lanetan lurzoruan egindako kalteak minimizatu egin beharko dira, eta horrela, % 50etik gorako aldapetan lurzoruaren kontserbazioa artelatzaaren habitataren berreskuratzearen aurretik doa.</p> <p>35) Bertako espezieak dituzten baso landaketetan, basoa berrezartzeko ekintzek, bertako espezieen inguruko espezie exotikoak progresiboki kentzea izan beharko dute oinarri, batez ere, artelatze helduenetan. Landaketetatik artelatze basoetara inoko pausua etengabe beharrezko zuhaitz estaldura mantenduz egingo da.</p> <p>36) Berrezartzea, artelatze basoak egitura orokor itxia eduki dezan egingo da (% 70< estaldurarekin), baina zonalde irekiago batzuk mantenduz (% 40< estaldurarekin). Zonalde hauetan, kanpoko nahiz bertako beste espezieen aurrean artelatze bultzatuko da, bere hazkuntza lagunduko duten baldintzak eratzuz.</p> <p>37) Artelatzeekin batera abeltzaintza estentsiboko aprobetxamendu zonaldeetan larreak eta bazka belardiak egotea baimentzen du errehabilitazioak.</p> <p>38) Landaketetatik artelatze basoetara inoko pausua etengabe beharrezko zuhaitz estaldura mantenduz egingo da, paisaia eta higaduraren alde-tik inolako inpaktu negatiborik ez sortzeko eta bat-batean baldintzak ez aldatzeko.</p> <p>39) Zonalde hauetara sarrera orain arte dauden oihanbideetatik izango da.</p> <p>40) Artelatze zabaltzea lortzeko ekintzak egin diren zonaldeetan baso egitura dibertsifikatua lortzean joera, lerro zuzenak lortzea izan behar da, figura geometrikoak edo landaketa marko finkoak ekidinez.</p> <p>41) Basoak ez diren habitatetan, larre, iradi, bazka belardi eta laborantzetan artelatzeak landatu, artelatze sakabanatzeko eta elkar lotzeko korridoreak eratzuz.</p> <p>42) Iratze eta larre zonalde oso dentsuetan, baldintza egokiak eduki arren artelatzeak ia ez dagoen gunetan, soilgunek ireki beharko dira eta artelatze aleak landatu, bertako landaretza naturalak artelatza-landarea babestu dezan.</p>
--	---

2.- LANDAZABAL ATLANTIKOA

Kontserbazio egoera

Landazabal atlantikoaren barne sartzen dira sega belardi pobreak (UE 6510), bazkatutako larreak eta manipulatu gabekoak (EUNIS E2.11), eta heskai eta hormak.

Sega belardien azalera (12ha) eta bazkatutako larreen eta manipulatu gabeko larreena (25 ha), jabetza pribatukoak dira eta indarrean dauden baserrien presentziagatik eta irismen onagatik mantentzen dira egonkor.

Larre eta belardien azalerari buruzko datuez gain, landazabal atlantikoaren kontserbazio egoeraren adierazle kuantitatiborik ez dago, eta kartografiak ez du uzten heskai naturalak bezalako beste elementu garrantzitsuak ikusten, bere tamainagatik eskala horretan ez baitira antzematen.

Garate-Santa Barbarako larreek ez dute habitat mota honetako adierazgarri onenek duten flora dibertsitate alturik.

Ez dago landazabalaren gaur egungo egitura baloratu ahal izateko eta mosaikoaren barnean jarraitzen duen patroia definitzeko heterogeneotasun indize edo antzekorik. Ez dago, gainera, larreen erabileraren aldaketak ekartzen dituen inpaktuak baloratu ahal izateko daturik, eta beraz, polinizatzaileengan eta egitura trofikoan izan dezakeen eraginei edo lurzoru eta uren kutsadura organikoan inguruko daturik ere ez dago.

Jarraipena izan dezaketela aurreikusten den baserriak egoteak larre eta orokorrean landazabalaren kontserbazioa hobetzea ekar dezake. Hala ere, agrosistema hauek epe ertain eta luzera mantentzea zalantzakoa da.

Campiña atlántica Desegokia-txarra				
Azalera	Egitura	Funtzioak	Etorkizunerako aurreikuspenak	
Desegokia-txarra	Ezezaguna	Ezezaguna	Desegokia-txarra	

Baldintzak

92/43CEE Zuzentarauko II eranskinean edo 79/409/CEE Zuzentarauko I. eranskinean agertzen diren hainbat espezie, antzandobi arrunta, musker berde-beltza edo eguneko tximeleta (*Euphydryas aurinia*), kasu, agrosistema hauen osasun egoeraren adierazle dira.

Zientzialariek gaur egun ohikoak diren espezie batzuen jarraipena egitea aholkatzen dute, izan ere, gizatiartutako paisaietan bizitzean, mehatxu handiagoan bizi diren espezieen gainbehera detektatzeko alerta goiztiar sistema izan baitaiteke.

Oraindik bi artalde daude Zarauzko sega belardiak aprobetxatzen. Artaldeen zati batek, gainera, Zarautzik gertu dauden Getariako larre eta belardi batzuk erabiltzen ditu. Behiek (2 behi ustiapen) Getariako larreak erabiltzen dituzte. Abeltzaintza ustiapen hauen aktibitatea ondorengo 6 urteetan mantenduko dela dirudi.

Landazabaleko heskai eta basotxoek agrosistemaren kalitatea bera ere areagotzeaz gain, artelatz basoen orbanen lotura hobetzen du, eta hori izan da eremu hau izendatu eta babesteko arrazoi nagusia.

Baserrien inguruan sega belardiak nagusi diren azalera dago, eta neurri txikiagoan, normalean 5ha baino gutxiago, bazka belardiena. Getariako Kajuategi eta Garateko larre eta belardien kasua da. Baserrien inguruan dauden eremu lauenak sega belardiak dira. Zarautzen, larre eta belardiak artaldeak aprobetxatzen dituzte. Sistema tradizionalak bertan behera uzteak, hala nola udako segak egiteak, simaur eta purinekin ongarritzeak, ez berrereiteak eta udazkenean ganadua sartzeak, larre mesofiloetara garatzea ekar dezake.

Sega kopuru altuak, batez ere, hazia sakabanatu aurretik martxoan egiten direnak, mindekin gehiegi ongarritzeak eta ganaduaren zuzeneko aprobetxamenduak, batez ere neguan, sega belardien lore eraketa eraldatzen dute eta bere birsorkuntza ahalmena gutxitu. Loratu eta hazitu aurretik egiten diren segek, espezie polinizatzaileengan eta agrosistemaren egitura trofikoarengan eragina dute.

Larre hauek aprobetxatzen dituzten eta indarrean dirauten baserriak mantentzen badira ere, zaila da larre hauek kontserbazio egoera onean mantentzeko beharrezkoa izango litzatekeen praktika kulturalera itzultzea.

Landazabalaren ezaugarri nagusi diren larreak banatzen dituzten heskai biziak aurretik ere eraldatu izan ditu gizakiak, landazabalaren paisaia sinplifikatuz. Zonalde askotan alanbrezko itxiturek ordezkatu dituzte heskaiak.

Zenbait kasutan, mahastiek ordezkatu dituzte larreak, eta horrek arrisku potentziala dakar, jabe batzuek eraldaketa hori errentagarritasun ekonomikoagatik egin baitute.

Kontserbaziorako duen balioaz gain, landazabal atlantikoak Euskadiko erabilera tradizionalei lotutako paisaia kultural gisa balio handia du eta bere balio eszenikoa asko preziatzen da, aisialdirako ekintzen eszenatoki da eta inguruko hiriguneetako hiritarrek asko baloratzen dute. Horregatik, kontserbazioan lagunduko duten sistema berritzaileak probatu beharko lirateke.

Helburu eta neurriak	
2. helburua	Landazabal atlantikoaren (sega belardiak, bazkatutako larreak eta manipulatu gabekoak, heskaiak eta hormak) egungo azalera mantentzea eta bertako basoekin lotura biologikoko sarea hobetzea.
2,1 emaitza	Gaur egungo landazabal atlantikoaren heterogeneitatea eta azalera mantentzen da.
Neurriak	<p>43) Landazabalaren eta bere osagaien kontserbazio egoera ebaluatzeko parametro tekniko kuantitatiboak ezarri.</p> <p>44) Antzandobi arruntaren monitorizazio protokoloa diseinatu,</p> <p>45) <i>Euphydryas aurinia</i> monitorizatzeko protokoloa ezarri, eta kontserbazio egoera ezberdineko lursailetan bere presentzia aztertuz, kalitate adierazle gisa erabiltzeko aukerak baloratu.</p> <p>46) Gutxienez KBEko lursailetan aprobetxamenduak dituzten eta etorkizunerako aurreikuspen handienak dituzten abeltzaintza ustiapenen diagnostikoa eta erabilerarako plana egin. Diagnostikoak kontserbaziorako elementu natural eta kulturalak identifikatu beharko ditu, gaur egungo errentagarritasuna eta ustiapenen bideragarritasuna aztertu eta ustiapen hauen bideragarritasun ekonomikoa eta balore naturalen kontserbazioa ziurtatzen dituen eredu integratua proposatu.</p> <p>47) Aurreko neurrian egindako planak martxan jartzea ahalbidetzeko, ingurumen zerbitzuengatik ordaintzeko sistema definitu.</p> <p>48) Segá belardiak mantentzeko ingurumen kontratuak lortu, gutxienez horrela inbentariatutako azaleraren % 60ean.</p> <p>49) Heskaiak, basotxoak, larreak, zuhaitz bananduak, harrizko hormak, uharkak eta landazabalari balioa ematen dioten beste elementuak kartografiatu eta 3. neurrian aipatzen den «Basa fauna eta landaretzarentzat interesekoak diren elementu kultural, natural eta geomorfologikoen georreferentziatutako inbentario irekian» sartu.</p>

	<p>50) Landa Garapen Jasangarrirako Programaren barneko «larreen kontserbazioa», «heskaiak mantentzea» eta «hormak mantentzea»-ri buruzko neurrien analisia egin, eraginkorrak ote diren ikusteko. Analisi hori biodibertsitate adierazle neurgarriekin egingo da, eta dagokionean, bere aplikazioa hobetzeko aholkuak emango dira, emaitzen araberako enkante sistema martxan jartzea barne. Era berean larre habitatak eta bertako abeltzaintza arrazak mantentzeko aholkuak emango dira.</p> <p>51) Landazabalean, alde batetik baso orbanak konektatzen lagunduko duten eta abeltzaintzaren aldetik ere, itzala emateko, haizea mozteko esaterako, erabilgarriak gerta daitezkeen artelatzen edo haritz landaketak egiteko akordioak lortu. Ekintza hauek Vista Alegre parkea eta Mendizabal, Alleme, Ezterai eta Lertxundi baserrien artean eman daitezke.</p> <p>52) Lurjabeen eta abeltzainen artean larreen, heskaien eta landazabaleko beste elementu esanguratsuen kontserbaziorako neurri eta ekintzen hedapena aurrera eraman, KBeko balioen gainean sentsibilizatzeko aprobetxatuz.</p> <p>53) 700 m heskai landatu, elementu linealaren ondorengo ezaugarrien alde egingo duena:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Artelatza eta bertakoak diren beste espezieak landatu. • 4 metrotik gorako altuera eta zabalera • Inguruko zuhaitz eta zuhaixken dibertsitatea handituko duena. • Fruitu eta baiak sortzen dituzten espezie gehiago. • 100 metrora bertako zuhaitz helduen (10cm baino gehiago dituztenak) kopurua handitu. • Landaretzarik gabeko eremu gutxiago. • Beste baso txiki eta heskaiekin konexio eta kontaktu handiagoa.
Jarraibideak	<p>54) Segabeldiaren mantentzeko kontratuek ondorengo konpromisoak jaso behar dituzte:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Mahasti, arto, konifera landaketa edo belardien eraketa floristikoak eraldatuko duen beste edozertan eraldaketarik ez egin. • Belar mozketa bat edo bi besterik ez egin; lehenengoa loratu eta burutu ondoren (maiatza amaieratik ekainera). • Gorotzekin ongarritze bakarria egin neguan. • Ez erabili herbizidarik, baimendutako landaretza inbaditzaile espezieak erradikatzeko ez bada. • Ez bazkatu edo urtean bitan besterik ez bazkatu, bat udazkenean eta beste bat, leunagoa udaberrian. • Pobretutako zonaldeak berreskuratzeko besterik ez berrerein, eta gutxienez sega-belardietako 4 espezie erabili. Lekadunak eta gramineak konbinatzea aholkatzen da. • Ez goldatu ezta surik erabili. • Azpiegiturak ezartzeagatik edo beste edozein arrazoiengatik bere azalera ez murriztu.

55) Heskaien egoera ona mantentzeko ondorengo aholkuak ezartzen dira:

- Anfibioen habia egiteko garaian, kumaldi eta dispertsio garaian, martxoaren 1etik abuztuaren 31era, heskaietako edozein moneu ekidin.
- Heskaietan bi urtetik behin inausketak egin, eta hazkuntza geldoko espezieak badira hiru urtetik behin, izan ere, espezie batzuk bigarren hazkuntzako adarretan besterik ez baitira loratzen, eta urteroko mozketekin fruitu kopurua jaitsi egiten baita.
- Ustiaketa bereko heskaietan txandakako inausketak egin, eta ez guztiak urte berdinean, horrela heren bat baino gehiago ez daitezken moztu urte berean.
- Inausketak egiteko garaian larreen norabidean hazten diren adarretan ahal bada gutxienez 2m-ko banda errespetatu.
- Ez egin inausketa gogorrik, izan ere, heskai altu, zabal, dentso eta sastrakadunek gordeleku eta elikagai gehiago eskaintzen baitiote faunari.
- Fruitu garaian moztu behar bada, fruitudun ahalik eta adar gehien mantendu basa fauna elikatzeko.
- Heskaietatik 2m-tik aurrera erabili ongarrri eta herbizidak.
- Larre edo laborantza lurretatik heskaietara gutxienez 1m-ko belar banda mantendu.

56) neurria garatzeko, ondorengo parametroak hartu ahal izango dira kontuan:

- Landazabal azalera
- Segala belardien lore eraketaren aberastasuna
- Heskaien metro linealak eta kalitate indizeak
- Paisaia aniztasun indizea (erabilera aldaketa kopurua, erabilera kopurua eta erabilera bakoitzeko okupazioa kontuan hartuz, 1-2 kilometroko eta 20m-ko zabalera lagina hartuz kalkulatu dena)
- Ohiko hegazti dentsitatea: antzandobi arrunta
- Polinizatzaile dentsitatea: eguneko tximeleta (*Euphrydyas aurinia*).

57) 44. neurria garatzeko, 1-2 kilometroko luzerako transektoak erabili ahal izango dira, 100-200m-ko azalerarekin, ikuspenaren arabera, eta 10ha-ko dagoen hegazti kopurua kalkulatu.

58) 45. neurria garatzeko, ondorengo presentzia adierazleak hartu ahal izango dira kontuan:

- Larba-oihalen presentzia inguruan (2 m²). Gutxienez zoriz hautatutako 100 pausuko ibilbidean, 3 metroko geldialdiak egin urria eta otsaila artean. Gutxienez, geldialdien %.
- 30ean larba-oihala egon behar da.

	<ul style="list-style-type: none"> • Aurreko metodoa erabiliz, loreen maiztasuna aztertu maiatza eta ekaina artean. Gutxienez % 50ekoa izan behar du maiztasunak. • Belardiaren batez besteko altuera. Maiatza-iraila artean 8-20 cm-ko altueretako belardi mosaikoa egon behar da. • Behaketa zuzenen kasuan, beste lepidopteroen presentzia ere behatu, Natura 2000 sareko larre estentsiboen adierazle gisa baloratzeko.
--	--

BABES BEREZIKO ERREGIMENEAN HABITAT NATURALAK, FLORA ETA FAUNA

Habitatak	Kontserbazio egoera	Aldeko neurriak
Artelatza (<i>Quercus suber</i>)	Desegokia-kaltegarria	1 a 26, 51
Espezieak	Kontserbazio egoera	Aldeko neurriak
Tximeleta (<i>Euphidrias aurinia</i>)	Ezezaguna	43, 45, 48 a 53, 63
Arkanbelea (<i>Lucanus cervus</i>)	Ezezaguna	1 a 26
Schreiber muskerra (<i>Lacerta schreiberi</i>)	Ezezaguna	48 a 53, 60, 63
Eskulapioren sugea (<i>Elaphe longissima</i>)	Ezezaguna	48 a 53, 60, 63
Miru gorria (<i>Milvus milvus</i>)	Ezezaguna	48 a 53, 60, 63 a 71
Mirotz zuria (<i>Circus cyaneus</i>)	Ezezaguna	48 a 53, 60, 63, 66 a 69, 71
Belatz handia (<i>Falco peregrinus</i>)	Ezezaguna	48 a 53, 60, 63, 66 a 68, 71
Zata europarra (<i>Caprimulgus europaeus</i>)	Ezezaguna	48 a 53, 60, 63
Lepitzulia (<i>Jynx torquilla</i>)	Ezezaguna	48 a 53, 60, 63
Euli-txoria (<i>Ficedula hypoleuca</i>)	Ezezaguna	48 a 53, 60, 63
Antzandobia (<i>Lanius collurio</i>)	Ezezaguna	44, 48 a 53, 60, 63
Etze txinboa (<i>Sylvia undata</i>)	Ezezaguna	48 a 53, 60, 63

Babes bereziko espezie eta habitaten galera edo kaltea ekiditeko:

1. Basoei eragiten dien beste edozein jarduerak izan ditzakeen eraginak ebaluatu egingo dira Natur Ondarearen eta Biodibertsitatearen 42/2007 Legean eta aplikatu beharreko legerian ezarritakoari jarraituta.
2. Kontserbazio egoeran eragin dezakeen edozein ekintzak ingurumen ebaluazioa jasoko du. Kontserbazio egoera onean mantentzeko edo egoera horretara iristeko, aurretik gaur egungo egoera definitu beharko da, eta hau ezinezkoa den kasuetan, estimazio kualitatibo fidagarrien bitartez egin beharko da.
3. Ondoren, aldizka ebaluatu beharko da prozedura estandarizatuen bitartez. Horrela, EAEko Natura 2000 Sareko beste tokietako emaitzekin konparatu ahal izango da, orokorrean sare osoaren kontserbazio egoera estimatu ahal izateko. Prozedura hauek planaren jarraipen planean barneratuko dira eta espezie edo habitat bakoitzarentzat, talde taxonomikoentzat edo beste taxoi elkarketentzat egin ahal izango dira, beti ere espezie bakoitzaren bakarkako ebaluaketa ahalbidetzen bada.
4. «Babes erregimen bereziko habitat edo espezie» bat egoera txarrean dagoela zehazten denean, oinarrizko elementu edo kudeaketaren helburu izatera pasako da. Honen ondorioz, zuzenean, dagozkion kontserbazio neurriak aplikatuko zaizkio. Hala ere, «Babes erregimen bereziko habitat edo espezie» kontsideratzen jarraitu ahal izango da, beste oinarrizko elementuren batentzat planean aurreikusten diren neurriak bere kontserbazio egoera ona lortzeko nahikoak direla ikusten bada. Kasu horretan, neurri horiek aurreko taulan zehazten dira.

KUDEAKETAN LAGUNTZEKO TRESNAK

1.- BIODIBERTSITATEAREN EZAGUTZA ETA INFORMAZIOA

Baldintzak

Habitat eta espezieei buruzko nahikoa informazio ez izateak kontserbaziorako politika aktiboen plangintza eta inpaktuen ebaluazio egokia baldintzatu egiten du eta ondorioz, prebentzioa zailtzen du.

Kasu askotan ezinezkoa da datu kuantitatibo bidez espezieen kontserbazio egoera zehaztea. Leku hau Natura 2000 Sarean barneratzea eragin duten espezie eta habitat natural bakoitzaren egungo eta aldeko egoeraren definizioa, biodibertsitateari buruz dugun ezagutza hobetzeko aukera eta kudeaketa antolatze behar bat izateaz gain, legezko eginkizun bat ere bada eta EAE, estatu eta Europa mailan egoeraren ebaluazioak egin ahal izateko informazio estandarizatu hedatzeko prozedura arinak erabiltzera behartzen du.

Faunari buruzko informazioa batzuetan osatugabea eta da eta ez da zehatza. KBEko populazioen egoera eta joerari buruzko datu zehatzik ez dago, eta hortaz kontserbazio egoera ez da ezagutzen. Kasu askotan habitataren presentziatik edo baldintza ekologiko onargarriengatik espeziearen presentzia aurreikusi daiteke. Beharrezkoa da azterketa sakon bat egitea honen inguruan.

Ornogabeak dira, ohikoa den bezala, Garate-Santa Barbarako talderik ezagunena. Hala ere, datu bakarrak presentziari buruzko datuak dira. Gainera, askotan datuak 10x10 Km (WN 68) UTM koordikulatan agertzen dira, eta askotan kudeaketa antolatze behar ez da nahikoa. Arazo hau areagotu egiten da ezezagunagoak diren taldeentzat, hala nola, basoko ornogabeentzat (fauna saproxilikoak) eta kiropteroentzat.

Hegazti harrapariei dagokionez, miru gorria, belatz handia eta mirotz zuria bezalako espezieen presentzia aipatu behar da KBEan. Hala ere, ez dago hauei buruzko kokapenari eta populazioei buruzko informaziorik.

Flora baskularrari buruzko erreferentzia bibliografikorik edo aipamenik ez dago. Informazio hori baliagarria izaten da tokiko flora dibertsitatea ezagutzeko; baina dagoen informazioa oso zaharkituta dago eta ez du toponimia eguneraturik, hortaz, kudeaketarako ez da erabilgarria.

Habitaten kasuan ere informazioa ez dago osatua eta ezinezkoa suertatzen da datu horietatik abiatuz ebaluaketarik egitea.

EAEko landaretza mapa (EUNIS, 1:10.000) nahiko zehatza da habitat natural gehienentzat; ez, ordea, habitat natural txikientzat eta Izarraitzen babestu behar diren espezie askoren ziklo biologikorako garrantzitsuak diren mikrohabitatakat osatzen dituzten elementu natural eta kulturalentzat. Gainera, ez dago mapa hori eguneratzeko modurik, eta beraz, urte gutxitan kudeaketa tresna baliogabe bilakatu da, lurraldeak duen eraldaketa natural eta antropikoen dinamikagatik. Bestalde, 1:10.000 eskalako lanean antzematen ez diren hainbat habitat txiki daude. Beste habitat batzuk denborarekin modu naturalean edo gizakiaren erabileragatik eraldatuak izan daitezke, eta aldaketak ez dira eguneratu mapan. Horregatik, tresna zaharkitua suertatuko da mapa hori.

EAEko eskumen erregimena kontuan izanda, non administrazio batzuek eremu berean eskumenak egikaritzen dituzten, prozedura arinak eta efikazak ezarri behar dira, habitatea, bere banaketa eta azalera egon daitezkeen aldaketen informazioa modu egokian transmititzeko.

Egun, Eusko Jaurlaritzak kudeatzen duen Euskadiko Biodibertsitatearen Informazio Sistemak Autonomia erkidego mailan egindako Pagoetari buruzko proiektu, inbentario etab-en bidez jasotako dibertsitate ekologikoari buruzko datu ugari dituen arren, oraindik ere oso barreiatutako informazioa eta kudeatzaileentzat irismen zailekoa den informazioa badago.

Bestalde, merkatuan balioa duten Garate-Santa Barbarako zenbait produkturen finantza balioez gain, ez dago bertako biodibertsitate osoaren balorazio ekonomikorik. Bertako ekosistemek sortzen dituzten ingurumen zerbitzuak eta biodibertsitatek eratorritako onurak ez dira kuantifikatuak izan. Biodibertsitatearengan eragina izan dezaketen ekintzei buruzko erabakiak hartzerako orduan biodibertsitatea kontuan har dadin eta gizarteak, biodibertsitatearen galerak gure ongizate mailan eta gure ekoizpen sistemaren babesean duen eragin zuzena uler dezan, balorazio hauek ezinbestekoak dira.

Faunaren hilkortasun ez naturalen eta honen arrazoiei buruzko erregistro estatistikorik ez dago, hala nola, harrapaketak, elektrizitate kableak, pozoia eta furtibismoa. Honek, prebentzio neurri egokien ezarpena eta korridore ekologiko eraginkorren diseinua zailtzen ditu.

Azkenik, ez dago BBEan zaindu behar diren basoko fauna populazioengan eta interes komunitarioko habitatengan ehizak izan dezakeen eraginari buruzko kalitatezko informaziorik. Hortaz, zaila da ehizaren gaineko neurri, arau eta jarraibideak ezartzea. Euskadiko Naturaren Kontserbaziorako 16/1994 Legearen moldapena den martxoaren 11ko 1/2010 Legearen eta martxoaren 17ko 2/2011 Ehiza Legearen arabera, KBEa ehiza erregimen bereziko zonaldea da, eta bertan ehiza aprobeixamendua Ehiza Antolamendurako Plan Teknikoen arabera eramango da aurrera. Plan hauek ez dira oraindik idatzi eta ez dira KBE honi dagozkion Kudeaketa Planetan jaso.

Helburu eta neurriak	
3. helburua	Adierazle kuantitatiboIzarraitzeko biodibertsitatearen kontserbazio egoera eta biodibertsitatea galtzea edo kaltetzea eragin dezaketen arrazoiak ezagutzea, biodibertsitateari epe luzera eustea bermatzeko neurriak diseinatze aldera.
3.1. emaitza	Kontserbazio egoera hobetzeko interesgarriak diren habitat guztien eta Izarraitzeko dibertsitate biologikorako eta osotasun ekologikorako garrantzitsuak diren leku edo elementu natural edo kultural guztien kartografia eguneratua edukitzea.
Neurriak	<p>59) Adituek egindako behaketa berrietatik eratorritako informazioaren bidez EUNIS Habitaten mapa eguneratzeko protokoloa definitu. Honakoak izan beharko dira kontuan:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Gizakiaren esku-hartzea edo eboluzio naturalaren ondorioz gertatutako aldaketak. • Lan eskalaren ondorioz inbentarioan barneratu gabe geratutako kokapen murriztuak dituzten habitatei buruzko informazioaren hobekuntzak. <p>60) «Basa fauna eta florarentzat interesekoak diren elementu kultural, natural eta geomorfologikoen georreferentziatutako inbentario irekia» eratu. Inbentario honetan EUNIS habitat inbentarioaren barnean kartografiatuta ez dauden mikrohabitatakat bilduko dira. Inbentarioan, gainera, faunarentzat interesekoak diren basa flora, intereseko zuhaitzi isolatuak, baltsak, putzuak, putzutzen diren lurzorua, zabalgunea eta ekotonoak, trantsizio habitatakat, eskaiak, bordak, eroritako bordak, kobazuloak eta babeslek, elikadura edo kumeak edukitzeko toki apropos gisa erabili daitekeen edozein elementu edo Garate-Santa Barbarako osotasun ekologikoarentzat onuragarria den edozein elementu sartuko da. Inbentarioan sartuko dira, gainera, herri bideak, xendak, kobazuloak, simak eta hobiak. Inbentarioak, barneratutako elementuak karakterizatu beharko ditu edo gutxienez, barneratuak izatearen arrazoiak adierazi beharko ditu.</p>
Arauak	<p>61) Elementu bat «Basa fauna eta landaretzarentzat balioa duten elementu natural, kultural eta geomorfologikoen inbentario georreferentziatu irekian» barneratzeak, elementu hau dagoen eremua «Babes bereziko eremu» izendatzea suposatuko du eta eragina izan dezaketen ekintzei buruzko ikerketak egin beharko dira eta beharrezkoa izanez gero, konpentsazio neurri egokiak ezarri beharko dira.</p> <p>62) Modu egokian justifikatua egongo balitz eta beste aukerarik egon ezean, elementuen galera edo narriadura sortuko lukeen ekintzaren bat baimenduko balitz, kaltea konpontzeko, elementutik ahalik eta gertuen honen baldintza eta funtzio ekologiko berdinak beteko dituzten elementuak ezarri beharko dira kaltea egin aurretik. Modu honetan KBEeko aktibo naturalaren kopuru osoa mantenduz.</p>

3,2. emaitza	Babes bereziko erregimeneko basa espezie eta desagertzeko arriskuan dauden habitat guztien kontserbazio egoera ezagutzen da.
Neurriak	63) Babes bereziko erregimenean dauden habitat eta basoko espezie guztien kontserbazio egoera zehaztea, informazioa erraz erabiltzeko eta, era horretan, informazio estandarizatua transmititzeko betekizunak betetzeko, Habitaten Zuzentarauko 17. artikuluari jarraiki.
3,3. emaitza	Garate-Santa Barbarako dibertsitate biologiko osoa eta ekosistemak hornitzen dituzten Garate-Santa Barbarako ingurumen ondasun eta zerbitzuen balio ekonomikoaren estimazioa ezagutzen da.
Neurriak	64) Garate-Santa Barbaratik eratorritako ingurumen zerbitzu eta biodibertsitatearen balio ekonomiko osoa kontuan izanik, bere existentziatik eratorritako onurak kuantifikatuko dituen ikerketa egitea. Ikerketa hau zehazki lekuarentzat egin daiteke edo emaitzen transferentzia ahalbidetuko luketen metodologiak erabiliz eskala handiagoan egingadako ikerketen barne. 65) Aurreko ikerketaren emaitzak bertako komunitateetan zabaltzeko interesa duten guztien esku jarri, horrela, erabakiak hartzeko orduan eta eragina izan dezaketean ebaluazio estrategiko edo inpaktu ebaluazioetan kontuan har daitezten.
3,4. emaitza	Fauna basatiaren hilkortasun ez naturaleko puntu beltzen mapa egitea, BBEan eta inguruan.
Neurriak	66) Planaren lehenbiziko bi urteetan Ehiza Antolatzeko Plan Teknikoa egitea. Planaren edukia hau izango da, gutxienez: <ul style="list-style-type: none"> - Espezie zinegetikoen kontserbazio egoera, batik bat oilagorrena. - Erreserba eremuak. - Kontserbazio helburuekiko bateragarritasuna eta babes bereziko erregimenean dauden espezieei eragin zuzenak, arriskuak edo eragozpenak ez sortzeko neurriak. - Olgetarako erabilerekiko bateragarritasuna eta BBera ehizara joaten ez direnei arriskuak eta eragozpenak ez sortzeko neurriak. Horretarako, ehiza eremuak mugatuko dira, ehiza egutegia egokituko da eta segurtasun eremuak zainduko dira. - Kartutxoak kentzea kontrolatzea, berunarekin intoxikatzen arriskuak ebaluatzea eta arrisku horien segimendua egiteko programa bat martxan jartzea. - Zaintza eta kontrol programa bat egitea. 67) Igeldoko Basa-Faunaren Berreskuratze Zentroan sartzen diren KBeko eta inguruko basa espezieen erregistro informatikoa egingo da. Honako datuak sartuko dira: zauria edo lesioa, arrazoia eta jasotako puntuaren koordinada geografikoak. Pozoitze kasuetan, analisi toxikologiko zorrotzak egingo dira zigor ekimen eta ekimen administratiboetan baliagarriak izan daitezten.

	<p>68) Jasotako informazioarekin puntu beltzak adieraziko dituen mapa osatuko da, bertan honakoak jasoko dira: elektrizitate hariteria eta aerosorgailuen aurkako talkak, elektrokuzioaren ondoriozko heriotzak, tiroak, pozoitzeak, harrapatzeak eta heriotza ez naturala eragiten duen beste edozein arrazoi. Hiru urtero mapa hori eguneratuko da, eta plan honetan eta ondorengoetan barneratzeko neurri zuzentzaileak proposatuko dira.</p> <p>69) Abeltzain, baso ustiapenetako jabe, mendi elkarte, ehiztari eta inguruan ibiltzen diren beste kolektiboetako kideei mapa egingo dela jakinaraziko zaie, beraiek ikusitakoak ingurumen administrazioko langileei adierazteko.</p> <p>70) Naturaren Babeserako Komisio Nazionalak onartutako «Pozoidura Kasuetarako Ekintzen Protokoloa» ezarri eta perituen probak egiteko aholkuak jasotzen dituen txosten tekniko bat prestatu</p> <p>71) Basa faunaren heriotza ez naturalen urteroko informea egin, hartutako neurri prebentiboak eta hauen emaitzak adieraziz, eta informe hau interesdun guztiengana iristea ziurtatu.</p>
Jarraibideak	<p>72) Behin eta berriro pozoitutako amuzkien erabilera antzematen bada «Ingurune Naturalean amuzki pozonduen erabileraren aurkako Estrategia Nazional»ean jasotako neurriak hartuko dira.</p>

2.- KOMUNIKAZIOA, HEZKUNTZA, PARTEHARTZEA ETA HIRITARREN KONTZIENTZIAZIOA

Baldintzak
<p>Gobernantza egokiaren printzipioetan oinarrituz, hiritarrak informatu, entzun eta parte hartzeko eta administrazio publikoak bere kudeaketari buruzko azalpenak emateko organo eta prozedurak ezartzea beharrezkoa da.</p> <p>Lurraldea pribatua da. Udalek kualifikatutako tekniko espezialistak dituzte, tokia ondo ezagutzen dutenak eta KBEren aldeko jarrerekin, baina Euskadiko Natura 2000 sarean sartzeak dakartzan ondorioei buruzko informazioa falta dela diote.</p> <p>Kontsultatutako jabe pribatuek eta Garate-Santa Barbarako erabiltzaileek ez zuten Natura 2000 Sarearen berri. Sarean sartzeko arrazoiak eta ondorioak zein diren eta administrazioak zer gestio lan egiten duen leku horietako dibertsitate biologikoa zaintzeko. Ez zuten gainera, kontserbazioaren helburuak lortzeko dauden laguntzen berririk ere.</p> <p>Eremuak ez du harrera, komunikazio, hezkuntza eta ingurumen interpretazioko ekipamendurik.</p>

Helburu eta neurriak	
4. helburua	Garate-Santa Barbarako KBEan eragina duten erabakiak hartzeko prozesuetan gizartearen partaidetza bultzatzea eta KBEaren kontserbazioan hiritarren inplikazioa bultzatzea.
4,1. emaitza	Gizarteari, Garate-Santa Barbarako biodibertsitatearen kontserbazio egoera, aurkako egoerak sortzen dituzten arrazoiak, honen inguruko politika publikoak eta hauen emaitzei buruzko informazioa erregularri helarazten zaio.
Neurriak	<p>73) Ingurumen Saileko web orriari ageri den Garate-Santa Barbarako KBEko informazioa herritarrentzat ulerterrazagoa egiteko eguneratze programak hobetu.</p> <p>74) Landaretza eta fauna kontserbatzeko neurriei buruzko komunikazio programa garatu eta neurri hauen eragina jasan dezaketen edo aktiboki inplikatu daitezkeen gizarteko sektoreei zuzendu. KBEari eta Natura 2000ri buruzko bi informazio panel jarriko dira gutxienez.</p> <p>75) Parte hartze prozesuan ikusitakoaren arabera, kudeaketa plana zaildu edo faboratu dezaketen eragile sozial eta ekonomikoak aukeratu dira, bere ezaguera eta gaur egun duten jarrera aztertuko da eta plana aurrera eramateko planteatzen dituzten mugak identifikatuko dira.</p> <p>76) Oinarrizko eragile bakoitzarentzat neurri zehatzak definitu kontzeptuak modu egokian eta ulergarrian garatzeko helburuarekin; jarrera aldaketak bultzatu eta Garate-Santa Barbarako biodibertsitatearentzat kaltegarriak diren jarreraren aldaketa bultzatu. Konkretuki, ondorengo proposatu beharko da: a) KBEaren onurak komunikatu. b) komunitateen eta tokiko entitateen ezaguerak eta onarpen soziala hobetu.</p> <p>77) Hiritarrek KBEari eta bere helburuei buruz duten ezagutza maila, jarrera eta portaerak ikusteko aldizkako ebaluaketak egin, komunikazio, hezkuntza eta kontzientziaziorako ekintzak birbideratu ahal izateko.</p>
Arauak	78) Izarraitzeko lan zientifiko eta teknikoetan, plan honetako helburuekin zerikusia badute eta baliabide publikoekin kontratatu eta finantzatzen badira, herritarrek erraz ulertzeko dibulgaziozko laburpen bat sartzea.
Jarraibideak	79) Laburpen hauek Ingurumen Saileko web orriaren bitartez zabaldu beharko dira eta eskatzen dituen orori helaraziko zaizkio.

3.- GOBERNANTZA

Baldintzak
<p>Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Saila Natura 2000 Sarearen arduraduna da. Baina azaroaren 25eko 27/1983 legearen arabera, kudeaketa Gipuzkoako Lurralde Historikoko foru organo eskudunari dagokio. Baina, ez dago Eusko Jaurlaritzako Biodibertsitate Zuzendaritza eta Gipuzkoako Foru Aldundiak elkarrekin lana egiten duten lan talde egonkorrik.</p> <p>Babestutako eremuaren maila ezberdinetako antolaketa tresna guztiak koherenteak izan behar dira. Bestela, erakundeen zereginak gainjartzea gerta daiteke eta, ondorioz, dauden giza eta finantza baliabide eskasak modu eraginkorrean ez erabiltzea eta espazioaren gestioa kaltetu dezaketen kontraesanak sortzea.</p> <p>Europar Batasuneko komisioak eta kontseiluak ebatzi dutenez, Natura 2000 Sarearen kontserbazioa planeamendu sektorialeko eta garapen sozioekonomikoko tresna guztietan helburu bezala barneratu behar da. 42/2007 legeak adierazten duenez, botere publiko guztiek, dagokien esparruan, ondasun naturalaren kontserbazioan eragingo duten ekintzak eta ondorioz Natura 2000 sarea, bultzatuko dituzte. Elkarlan egokia sortzeko eta sektore anitzeko aliantzak sustatzeko zailtasun instituzionalen ondorioz, gerta daiteke planean proposatutako helburuak ezin lortzea.</p> <p>Plana ezingo da aplikatu egitura egoki bat sortzen ez bada. Egitura horrek gai izan behar du inplikaturako administrazio, erakunde eta agente sozialak dinamizatzeko, jardueren eta emaitzen segimendua egiteko, jarduera eta emaitza horien berri emateko, jarduera berriak proposatzeko eta, inplikaturako alderdi guztiei eta dagozkien adituei kontsulta egin ondoren, aurreikusitako helburuak lortzeko egin behar diren aldaketak aurrera eramateko.</p>

Helburu eta neurriak	
5. helburua	Organo eskudun guztien koordinazio instituzionala hobetu eta Ingurumen araudia eta zatikako araudia egokitu, dokumentu honetako helburu, neurri, jarraibide eta arauekin bat etor dadin.
5,1. emaitza	Eusko Jaurlaritzako Biodibertsitate Zuzendaritza eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Garate-Santa Barbarako ekintzak koordinatu daitezten talde tekniko iraunkorra sortzen da.
Neurriak	80) Egungo kudeaketa planaren garapenean lankidetzan aritzeko Eusko Jaurlaritzako Biodibertsitate Zuzendaritza eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko lan talde egonkorra osatu. Jarraipen organo hori, KBE izendatu ondoren, gehienez urte beteko epean osatuko da.
5,2. emaitza	Planaren aplikazioa errazteko ingurumen araudi eta zatikako araudi guztia egokitu da, KBE politikaren sektorial guztien ingurumen integrazioa hobetzeko.
Jarraibideak	81) Plan honen ezarpen eremuan eragina izan dezakeen edozein plan sektorialeko, derrigorrezkoak diren neurri prebentibo eta minimizatzaileez gain, Garate-Santa Barbarako biodibertsitatean eragin positibo eta ebaluagarriak izango dituzten neurriak eta planaren helburuak lortzen lagunduko duten neurriak izan beharko ditu.

ZONIFIKAZIOA

Egungo egoeraren arabera eta egitea proposatzen den kudeaketaren arabera eremu ezberdinak definitzen dira. Kontserbazio egoera zein honi loturiko kudeaketa egokitua arrazoi naturalengatik zein gizakiak eragindako arrazoiengatik denboran zehar aldatzen joan daiteke. Adibidez, posible da beharrezko berriztapen neurriak ezarri ostean, berriztapen ekologikoko eremu bat babes zorrotzeko edo garapen naturaleko eremu izendatzea. Beraz, zonifikazioa denborarekin alda daiteke.

1.- GARAPEN NATURALEKO EREMUAK (GNE)

Balio ekologiko altuko eremuak dira eta bertan lekuaren osotasun ekologikorako oinarrizkoak diren prozesu funtzionalak ematen dira. Eremuok natur habitatak edo espezie bereziak edo mehatxu handipeko espezieak era badira, eta esku hartzea ahalik txikiena izan behar da.

Beren barne habitat naturalak hartzen dituzte edo oso bereziak diren espezieen edo oso mehatxatutako espezieen habitatak dira. Eremu hauetan salbuespen gisa, habitaten garapena azkartzeko, bere espezieek kontserbazio egoera hobetzeko edo bere osotasun ekologikoa arriskuan jar dezaketen mehatxuak geldiarazteko intentsitate baxuko ekintzak planteatu ahalko dira. Baita ere, izaera zientifikoa, hezkuntzako edo erabilera publiko-koa duten ekintzak aurrera eraman ahalko dira, beti ere, eremuaren osotasun ekologikoari eragiten ez dioten bitartean. Administrazio organo eskundunak baimendu behar ditu jarduketak horiek, kontserbazio neurriak aplikatuta.

Zonalde hauetan sartzten dira KBEko bertako basoak, hau da, artelatx basoak, artadiak, harizti azidofiloak (harizti-baso misto atlantikoa barne), eta hostozabalen baso natural gazteak.

2.- BABES ZORROTZEKO EREMUAK (BZE)

Normalean dimentsio murrizteko eremuak izan ohi dira eta bere barne balio esanguratsuko elementu natural edo kulturalak, elementu arraroak, nolakotasun adierazgarri edo estetikoak dituztenak edo basa fauna eta landaretzaren kontserbaziorako, ziklo biologikoaren garapenerako edo gordeleku, kumatze leku, elikagai iturri edo desplazamendu leku bezala garrantzia duten eremuak dira. Babes zorrotza eta beren inguruan aurrera eramaten diren ekintzen kontrola behar dute.

KBEan, kategoria honen barnean sartzten dira ondorengoak: bertako espezieen heskaiak, errekaostoen alde banatan 10m-ko babes banda, katalogatutako zuhaitza (Getariako artelatza) eta KBEan dauden sakabanatutako ale esanguratsuenak.

Kategoria honetan sartzten joango dira basa fauna eta florarentzat interesekoak diren balio kultura, natural eta geomorfologikoen inbentarioan sartzten joaten diren elementuak

3.- BERREZARTZE EKOLOGIKOKO EREMUAK (BEE)

Beren balio ekologikoek, habitat naturalek eta espezieek aldaketa edo narriadura nabarmena agertzen duten degradatutako eremuak dira. Eta beren funtzionaltasuna berreskuratu, baloreen biziraupena bermatu eta kontserbazio egoera hobetzeko ekintza ezberdinak proposatzen dira. Zenbait lekutan hasierako natur habitatak desagertu dira eta eurak berreskuratu behar dira.

Atal honetan sartzen dira baso landaketak (berriki moztutako koniferak, intsinis pinu landaketak, *Pinus sylvestris* landaketak, *Quercus rubra*, *Pseudotsuga menziesii*, eta *Robinia pseudoacacia* landaketak). Kontuan hartu behar da, KBEa txikia dela eta KBEan eta EAeko Natura 2000 Sarean orokorrean artelatzairen azalera txikia dela, eta hortaz, baso landaketa guztiak artelatz baso bilakatzea proposatzen da helburu bezala.

Zonalde honetan sartzen dira, gainera, Europako txilardi lehorrak (UE 4030) eta larre mesofiloak (UE 6210*). Larre hauen kasuan, hauen gehiengo sastrakadi bilakatu da eta bilakatu ez direnak ez dira lehentasuneko azpi-mota. Muinoetako iradi atlantiko eta subatlantikoak ere kategoria honetan sartzen dira.

4.- ABELTZAINZA USTIAPEN ESTENTSIBOKO EREMUAK (UEE)

Kategoria honetan ondorengoak sartzen dira: altuera gutxiko sega belardi po-break (*Alopecurus pratensis*, *Sanguisorba officinalis*) (UE 6510) eta bazkatutako larreak eta manipulatu gabekoak (EUNIS 2.11). Larre eta belardi hauek mantentzea garrantzitsua da habitataren kontserbazio egoera eta bere mosaikoa bermatzeko, eta baita ganaduari bazka eskaintza bermatzeko ere, muga naturalen gainera. Aprobetxamendu honek garapen sozioekonomikoan eragiten du, eta baita paisaia erakargarri eta baliotsuan ere.

Abeltzaintza ustiapen estentsiboko eremu gisa definitutako azaleretan, non etorkizunean berrezartze ekologikorako ekintzak egin daitezkeen, Berrezartze Ekologikoko Eremu izendatuko dira.

5.- ERABILERA INTENTSIBOKO EREMUAK (EIE)

Nekazaritza intentsiboko eremuak

Txakolina egiteko mahastiak, fruta-arbolak, baratzeak eta mintegiak sartzen dira kategoria honetan.

Aisialdirako erabilera publikoa

Askotan hiri zonaldeetatik gertu egoteagatik duten irisgarritasunagatik, aisialdirako eta natur balioak gozatzeko erabiltzen diren zonaldeak dira. Santa Barbara ermita KBEtik kanpo geratzen bada ere, bere ingurunean erabilera publikoa ematen da, eremuan eraginez.

Kategoria honetan sartzen dira: Vista Alegre parkea eta hainbat parke eta lorategi, PR eta GR ibilbideak eta Zarauzko Plan Bereziko ibilbideak.

Motordun ibilgailuak herri errepideetan besterik ezingo dira ibili, nekazaritza, abeltzaintza edo baso lanetarako edo KBeko zerbitzuetarako izan ezik.

Beste edozein aktibitaterako beharrezkoa izango da materiala edo pertsonak garraiatzeko baimen berezia edukitzea mugatutako bide horietan.

Bide eta pistetan beti oinezkoek izango dute lehentasuna; beraz, oinezko eta txirrindulari edo zaldunen artean liskarrik gertatuko balitz edo ingurunea edo KBeko kudeaketaren kalterik antzemango balitz, bizikleta eta zaldien erabilera mugatu edo debekatu egin ahal izango litzateke.

6.- HIRI EREMUAK ETA AZPIEGITURAK (HEA)

Eremuaren barruan aurki daitezken hiriguneak, jendea bizi den eraikin eta baserriak, dentsitate baxuko eraikinak, degradatutako beste habitat batzuk, non habitat artifizialak egon daitezkeen, Meagatik Getariarako errepidea eta erabilera publikoan aipatzen ez diren beste bide eta pistak.

2013ko maiatzaren 14a, asteartea

JARRAIPEN ADIERAZLEAK

HELBURUA	EMAITZA	ADIERAZLEA	HASIERAKO BALIOA	ERREFERENTZIAKO BALOREA
<p>Gaur egun dauden artelatz basoen azalera (15ha.) mantendu eta guztira 61ha. izatera iristeko 46ha.-tan handitu.</p>	<p>Artelatz basoen kontserbazio egoera hobetu, bere dibertsitate espeziifikoa eta egitura dibertsitatea areagotuz.</p>	Kontserbazio egoera	Zehaztu gabea	Ezaguna
	<p>Artelatzaren azalera 2ha.-tan handitu.</p>		15	35
<p>Landazabal atlantikoaren egungo azalera mantentzea eta bertako basoekin lotura biologikoko sarea hobetzea.</p>	<p>Gaur egungo landazabal atlantikoaren heterogeneitatea eta azalera mantentzen da.</p>	Landazabalaren kontserbazio egoera	Zehaztu gabea	Ezaguna
		Antzandobiaren kontserbazio egoera	Ezezaguna	Ezaguna
		<i>Euphydris aurinia</i> -ren kontserbazio egoera	Ezezaguna	Ezaguna
		Sega belardien azalera orokorra (ha)	12	≥ 12
		Ingurumen kontratuen barnean dauden sega belardien portzentajea	0%	60%
Berrezarritako heskaiak (m)	0	700		

2013ko maiatzaren 14a, asteartea

	Biodibertsitateko esanguratsua diren leku edo interesgarriak diren habitat guztien kartografia eguneratua eskuratu da.	EUNIS kartografia	2009an berrikusia	Eguneratua
<p>Biodibertsitatearen egoera ezagutu adierazle kuantitatiboan bitartez, eta baita bere galera eragin ditzaketen kausak ere.</p>	<p>Babes bereziko erregimeneko basa espezie eta desagertzeko arriskuan dauden habitat guztien kontserbazio egoera ezagutzen da.</p>	<p>Georreferentziatutako inbentario irekia</p>	<p>Ez dago</p>	<p>Indarrean</p>
<p>Biodibertsitatearen kontserbazio egoera ezagutu adierazle kuantitatiboan bitartez, eta baita bere galera eragin ditzaketen kausak ere.</p>	<p>Babes bereziko erregimeneko basa espezie eta desagertzeko arriskuan dauden habitat guztien kontserbazio egoera ezagutzen da.</p>	<p>Habitat eta espezieen kontserbazio egoera</p>	<p>% 80 ezezaguna</p>	<p>Ezaguna (ERPE habitat eta espezieen % 100)</p>
<p>Biodibertsitatearen kontserbazio egoera ezagutu adierazle kuantitatiboan bitartez, eta baita bere galera eragin ditzaketen kausak ere.</p>	<p>Biodibertsitatearen eta bertako ekosistemek eskaintzen dituzten ingurumen ondasun eta zerbitzuen balio ekonomikoa ezagutzen da.</p>	<p>Biodibertsitatearen balio ekonomikoa orokorra</p>	<p>Ezezaguna</p>	<p>Kalkulatua</p>
<p>Biodibertsitatearen kontserbazio egoera ezagutu adierazle kuantitatiboan bitartez, eta baita bere galera eragin ditzaketen kausak ere.</p>	<p>Fauna basatiaren hilkortasun ez naturala leku puntu beltzen mapa egitea, BBEan eta inguruan.</p>	<p>Puntu beltzen mapa</p>	<p>Ez dago</p>	<p>Badago</p>
<p>Biodibertsitatearen kontserbazio egoera ezagutu adierazle kuantitatiboan bitartez, eta baita bere galera eragin ditzaketen kausak ere.</p>	<p>Herritarrei, aldian-aldian, Izarraitzeko biodibertsitatearen kontserbazio egoerari buruzko informazioa ematea; baita kontrako egoerak eragiten dituzten arrazoiei, arrazoi horien inguruko politika publikoari eta politika horien emaitzei buruzko informazioa ere.</p>	<p>Hiritarren ezagutza maila</p>	<p>Baxua</p>	<p>Altua</p>
<p>Biodibertsitatearen kontserbazio egoera ezagutu adierazle kuantitatiboan bitartez, eta baita bere galera eragin ditzaketen kausak ere.</p>	<p>Herritarrei, aldian-aldian, Izarraitzeko biodibertsitatearen kontserbazio egoerari buruzko informazioa ematea; baita kontrako egoerak eragiten dituzten arrazoiei, arrazoi horien inguruko politika publikoari eta politika horien emaitzei buruzko informazioa ere.</p>	<p>Jarraipen organoa: saio kopurua/ barneratutako hiritarren ekarpenen %</p>	<p>0 / 0</p>	<p>1 urteko / > % 50</p>

2013ko maiatzaren 14a, asteartea

<p>Organo kompetente guztien koordinazio instituzionala hobetu eta Ingurumen araudia eta zatikako araudia egokitu, dokumentu honetako helburu, neurri, jarraibide eta arauekin bat etor dadin.</p>	<p>Eusko Jauriaritzako Biodibertsitate Zuzendaritza eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Pagoetako ekintzak koordinatu daitezten talde tekniko iraunkorra sortzen da.</p>	<p>Batzorde teknikoa</p>	<p>Ez dago</p>	<p>Indarrean</p>
	<p>Planaren aplikazioa errazteko ingurumen araudi eta zatikako araudi guztia egokitzten da.</p>	<p>Zatikako plan bateragarriak</p>	<p>Ebaluatu gabe</p>	<p>100%</p>